# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 118. zenbakia

2003ko uztailaren 11 • IV. urtea • DOAN BANATZEKOA

**Goienka2a**

**Gari-jotzea antzinako modura egingo dute bihar Antzuolan**

**ENRIKE LÓPEZ**

*"Desobedientzia zibila erakunde eta alderdietatik aparte egin behar da"* **/9**

**KULTURA**

**'Putz' aldizkariak ale bikoitza kaleratu du, diseinu berriaz /15**

**KIROLA: AIZKORRIKO MARATOIA KORRITU ZUTEN IBARREKOEN SAILKAPENA /10**

**DEBAGOIENA: 'GARA'-KO ZUZENDARI ALBOKOARI ELKARRIZKETA EGIN DIOGU /5**

**ASTEKO GAIA: IBARREKOAK, LIBURU ARTEAN /2-3**

## Uztaila, ikasi nahi duten askorendako hil onena

Uztaila, askorendako, oporren hasiera da, edo, behintzat, gauzak lasaiago hartzen hasteko garai aproposa; izan ere, badirudi betebeharrak arinago bihurtzen direla sasoi honetan.

Baina gero eta jende gehiagok hilabete hauxe aukeratzen du ikasten hasteko edo jarraitzeko. Lehen ez bezala, uztailean ikasten dutenak ez dira soilik irailerako azterketak prestatu behar dituztenak.

Batzuek beste aukerarik ez dutelako, beste askok borondatez eta gogo onez, kontua da debagoiendar asko akademiatara eta liburutegietara joaten direla egunotan. Besteak beste, hizkuntzak ikasi nahi dituztenak eta gidabaimena ateratzeko asmoz diharduenak aurkituko ditugu. Aurten oposaketak prestatzen ari direnak ere badaude.

- *Debagoieneko akademia eta kultura etxeak bete egiten dira*
- *Ikasteko grinagatik matrikulatzen direnak gero eta gehiago dira*

GOIATZ ARANA

## Indusketa lanetan Leze Txikin

Aurten ere indusketa lanetan ibiliko dira Leze Txikin uztailean. Astelehenean hasi zituzten lanok eta Santiago egunera arte ibiliko dira. 14 lagun ari dira, guztiak ere unibertsitateko irakasleak, Alvaro Arrizabalaga arkeologo oñatiarraren aginduetara. Historia, Arkeologia, Antropologia eta Medikuntza ikasten dihardute Leze Txikin dabiltzanek. Aurten bost metro eta erdiko sakoneran jardungo dute, sei metroraino iristeko asmoarekin (gutxi gorabehera orain dela 50.000-60.000 urteko mailetan). Orain arte hezurrak aurkitu dituzte, baina zera dio Alvaro Arrizbalagak: "Guretako onena beste gizaki baten hezur fosila aurkitzea izango litzateke, horrela emango lioke-eta ospea aztarnategiari".

DEBAGOIENA

### Harrera ona izan du beira birziklatzeko kanpainak

Harrera ona izan du, ibarreko tabernarien artean, ostalaritza-establezimenduetan beirazko hondakinak aparte batzeko Mankomunitatearen kanpainak. Bisitatutako establezimenduen %94k Birziklatzen Laguntzeko Konpromisoa izenpetu dute. Hurbileko igluetara eramatera konprometitu dira horrela. **/6**

DEBAGOIENA

### Euskararen aldeko herri jolasak egingo dituzte Oñatin

Bihar, zapatua, jokatuko da ibarreko euskara elkarteek antolatu duten herri jolasen finala. Oñatin elkartuko dira, 11:00etan, Herriko Plazan. Hainbat proba egin beharko dituzte parte-hartzaileek, kiroletakoak, kultura orokorrekoak, hizkuntzaren erabileraren gainekoak... Eta saria, berriz, asteburu pasa baserri turismo baten izango da. **/6**

HERRIZ HERRI

### Bergara-Antzuola errepidea zabalik dago eguaztenaz gero

Bi hilabetez itxita egon eta gero, eguazten goizean zabaldu zuen Diputazioak Bergara eta Antzuola lotzen dituen GI-632 errepidea. Bergarako Udalak erabaki zuen ixtea, maiatzaren 10ean errepide ondoan dagoen harrobi zaharrean lur eta harri jauziak gertatu eta gero. Hormigoizko plakak jarri dituzte, harriak eroriz gero, haiei eusteko. **/7**

DEBAGOIENA/4-6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11

# Uztailean ikasle, borondatez edo nahi eta nahi ez

- Askotako motibazioak jarraituz, ibarreko askok ikasten du hil honetan
- Unibertsitariak eta hizkuntza ikasleak doaz, batez ere, akademietara
- DBH eta LHko gaztetxoek ikasturteko edukiak finkatzeko ikasten dute

LEIRE KORTABARRIA

Uztailean, ikasgelak, akademiak eta liburutegi publikoak bete egiten dira. Mota askotako jendeak dihardu hilabete honetan ikasten, eta mota askotako ikasketak jarraitzen dihardute.

*Iraileko azterketak egin, gidabaimena atera… Denetariko motibazioak dituzte ikasleok*

*Hizkuntza eskolara jende asko hizkuntza berri batekin proba egitera joaten da*

*Oposaketak prestatzen ari direnek bete izan dituzte aurten liburutegiak*

### UNIBERTSITATE IKASLEAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, uztailean bertan egiten dituzte errekuperazio azterketak; hori dela-eta, ikasle hauen udako ikasketa aroa goiz bukatzen da. Baina irailean azterketak dituztenak ere badira: Unibertsitate ikasleak, alegia.

"Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza eta Enpresa ikasten ari direnak etortzen dira, batik bat", diosku Arrasateko Bastida akademiak. Han, ikastaroak uztail amaieran hasten dituzte. Bergarako Ikasi akademian, berriz, uztailetik ari dira eskolak ematen. Han ere, aipatutako ikasketa horietako ikasleak joaten dira, Estatistika, Matematikak, Algebra edo Kalkulu eskolak hartzera. "Eibarren, Oñatin edo Arrasaten ikasten ari diren lehenengo edo bigarren ikasturteetako jendea dator, batik bat. Baina baita, oporretan ibarrera bueltatzen diren ikasleak; hori dela-eta, denetariko eskolak ematen ditugu", dio Ikasiko arduradun batek.

### IKASITAKOA FINKATZEKO

Ibarreko akademiok eta liburutegiok, iraileko azterketak prestatzen ari diren unibertsitarioez gain, ikasle gaztetxoagoez beteta agertzen dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, eta baita, kasu batzuetan, Lehen Hezkuntzakoak.

Horiek, irailean azterketarik ez izan arren, eskolak hartzera joaten dira. Ikasturtean kili-kolo ibili direnen, edo ikasgai jakin batean hobetu nahi dutenen kasua da. "Euskara, matematika, gaztelania… eskatzen dizkigute, bereziki", diosku Marijok, Arrasateko akademia bateko irakasleak. 6tik 16 urtera arteko gaztetxoak elkartzen dira talde hauetan, eta, giro polita sortzen bada ere, guztiek dioskute "askoz gusturago" ibiliko liratekeela denbora libreaz gozatzen.

### ZORIONEKO IKASLEAK

Batzuek zorionekoak dira, borondatez matrikulatzen baitira aukeratutako ikastaro edo akademietan.

Multzo berezia osatzen dute gidabaimena atera nahi dutenek: Debagoieneko autoeskolen esanetan, "asko sumatzen da" oporren hasiera 18 urte bete dituztenendako, izan ere, adin horretakoak presaka matrikulatzen dira: "Azterketa teorikoa uztailean gainditzea da euren helburua, alde praktikoa irailerako utzita", dio Leniz autoeskolak.

Horiez gain, beste batzuk daude: hizkuntzak aukeratu dituztenak, alegia. "Ingelesa da nagusi. Adin guztietako jendea dator, baina gehienak 20-30 urtekoak dira. Hizkuntza horretan dagoeneko maila ona dute gehienek, eta hobetu gura dute", diote Oñatiko Koma akademiakoek. Debagoieneko hizkuntza eskola batzuek, CIMek kasu, ingelesezko udalekuak ere antolatzen ditu. "Asko hizkuntzarekin proba egitera datoz, eta gustuko badute, irailean segitzen dute", dioskute CIMen.

Borondatezko -eta zorionekoikasleen taldean, Udako Euskal Unibertsitatean matrikulatu direnak ere badaude. Hilaren 19an bukatuko dira aurtengo jardunaldiak, eta Debagoieneko 15 lagunek hartuko dute parte aurten.

### OPOSAKETAK, GOGORRENA

Uztailean egunean hainbat ordu ikasten eman behar dituztenen zerrenda, aurten, oposaketak prestatzen ari direnek ixten dute, eta horiendako bai, zama oso astuna da uztailean ikasi beharra.

Hezkuntza sailerako oposaketa-lehiaketa dago deituta, eta uztailean ari dira ahozko azterketak egiten. Liburutegiotan horiek prestatzen ari diren heldu asko dago. Hauek dira uztaileko zama hau astunen sumatzen duten taldea. Hala esan digute Bergarako liburutegian ikasten ari ziren bi herritarrek. "Nik hiru hilabete daramatzat ikasten, eta oraindik ere, uztailean, jarraitu egin behar", dio euretako batek.

ITURRIETA SAGARDOTEGIA

UDAKO DENBORALDIA
Egunero zabalik! Baita ABUZTUAN ere!

ESPEZIALITATEAK
- Haragia parrillan
- Bakalaoa parrillan
- Etxeko sagardoa
- Eta orain gainera... plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Arraga Auzoa (ARAMAIO) - Tel.: 945 44 53 85 - 657 79 02 90

**GIDABAIMENA** Zuriñe arrasatearrak 21 urte ditu, eta autoeskolan orain dela urtebetetik gora matrikulatu zen arren, uztailean ekin die ikasketoi inoiz baino gogo handiagoz, orain urtean zehar baino asti gehiago du-eta, nahiz eta lanak hartzen dizkion eguneko ordu gehienak. "Orain hasi naiz buru-belarri ikasten, azterketa teorikoa irailean egiteko", dio Zuriñek. Bilbon ikasten diharduenez, hango akademia baten dago matrikulatuta. "Uztailean gidabaimenerako prestatzen dabiltzan nire adineko asko ezagutzen ditut", diosku.

**HIZKUNTZEKIKO GRINA** Hizkuntza berri bat -frantsesa, kasu honetan- ikasteko gogoak elkartu ditu hizkuntza akademia bateko ikasgelan Mabel, Ana Belen, Izaro eta Mari Paz. Uztailean, hastapen ikastaroak antolatzen dituzte akademia askok, horrela jendeak hizkuntza berri batekin lehen harremana izan dezan. Horixe izan da lau lagun hauen kasua, hain zuzen ere: "Oinarri bat hartzeko balioko digu ikastaroak, eta gero, urtean zehar, jarraitu egingo dugu", diote. Aisialdia sakrifikatzea "apur bat kosta" egiten zaie, baina pozik dabiltza.

**IKASLE GAZTEENAK** Pozik dabiltza, baina uztaileko goizetako aisialdiaren falta igartzen dute LHko eta DBHko ikasle hauek. 6tik 16 urtera arteko taldea osatzen dute Ibai, Naroe, Kevin, Jonatan, Oier eta Olatz arrasatearrek (argazkian, Marijo irakaslearekin), Bikain akademian. Euskara eta matematikak lantzen dituzte batik bat, eta "gogor lan" egiten dutela dioskute. Astelehenetik egubakoitzera joaten dira akademiara, ikasturtean ikasi dituzten edukiak sendotzera, egunean ordubetez edo bi orduz.

**IRAILEKO AZTERKETAK** Miren eta Laiene bergararrak Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak egiten ari dira unibertsitatean. Lehenengo ikasturtea dute, eta irailerako gogor prestatzen ari dira. Horretarako, bi orduko eskolak ematen dituzte egunero-egunero akademia batean. Estatistika, Matematikak eta Algebrako eskolak hartzen dituzte, batik bat, horiek dira-eta ikasgai zailenak hasi berri dituzten ikasketotan. Onartzen digute gogorra egiten zaiela oporretan ikasten jarraitu beharra, baina fin-fin ari dira.

URKIOLA
Bidekurutzeta 42. 943 76 16 48
BERGARA

%50 eraino

GOIENKARIA

**Bi egunean egingo dute lo Debagoienean Eskola Ibiltariko kideek, Aretxabaletan lehenengo , eta Arantzazun ondoren.**

# Durango–Segura ibilbidea jarraituko dute Eskola Ibiltariko partaideek

*Eskoletatik kanpo Euskal Herriari buruz gehiago ikastea da helburua*

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Eskola Ibiltariaren laugarren edizioa egingo dute hilaren 17tik 19ra bitartean. Ikasle Abertzaleek antolatuta, Durango-Segura bitarteko ibilbidea jarraituko, eta hainbat ekintza burutzeko aukera izango dute parte hartzaileek.**

Ikasle Abertzaleek Eskola Ibiltaria 2003 antolatu dute, *Euskal Herria da gure eskola* lelopean. Aurtengoa laugarrena izango da. Durangon hasi eta Seguran emango zaio amaiera . Uztailaren 17an abiatu eta hiru egunetan egingo den ibilaldian gauza ugari ikasteko aukera izango da.

Ibilaldia gure herriko historia, geografia, natura, kultura, usadioak, jakinduria... ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen da. Eta antolatzaileek prestatutako ekintzek horrela erakusten dute. Besteak beste euskal mitologia ezagutzeko parada izango da Anbotora igo ondoren. Urbian, esaterako, artzaintzari buruzko jardunaldiak egingo dira.

Hala ere aipatzekoa da plaza mugatuak izaten direla. Aurreko urteko ibilaldira 60 pertsona joan ziren. Baina iaz beste ibilbide bat jarraitu zuten lagun horiek. Nafarroa eta Araba ezagutzeko aukera izan zuten, Lizarratik Araiara arte egin zen bidean.

### ZENBAIT ARGIBIDE

Durango-Segura egin ahal izateko, urtero bezala zertxobait ordaindu behar da. Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, aurten 18 euro izango dira. Prezio horren barruan eguneroko ekintzetan parte hartu izateko aukera dago. Horretaz gain, gosaria eta afaria emango dute egunero. Beraz, bazkaria norberaren kontu izango da.

Parte hartzaileek ez dute kanpin-dendarik eraman beharko, lo egiteko azpiegiturak egongo dira eta. Hiru egunetan zehar dutxatzeko aukera egongo da, eta baita bainua hartzekoa ere. Azken hau, esaterako, Araotzen egin ahalko da.

Ibilbide guztian zeharmotxilak garraiatuko dituzte antolatzaileek lo egingo den tokiraino. Hori dela eta, bizkar zorro txiki bat eramatea aholkatu dute antolatzaileek.

Eskola Ibilaldira joateko autobusak egongo dira, eta tokia edukitzeko izen ematea ohiko tokietan egingo da.

Beraz, hiru egunean gune euskaldunean bizi nahi, eta Euskal Herriari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, arropa eta oinetako egokiak jantzi eta Eskola Ibiltaria 2003an parte hartzera animatu. Eta zalantzaren bat izanez gero, *www.ikasle-abertzaleak.com* helbidera jo edo 679 83 80 59 telefonora dei dezakezue.

**ENEKO BARBERENA**
ANTOLATZAILEETAKO BAT

## "Gure lurrari buruzko eskolak emango dira"

**Zein da Eskola Ibiltariaren helburua?**

Gure eskola eredutik eta klaseetatik at, kanpoan gure lurrari buruzko eskolak hartzea litzateke. Esaterako, Anbototik pasatzerakoan Mariren inguruan arituko gara, edo Arantzazun Pello Zabalarekin hitz egingo dugu.

**Ibarretik ere igaroko zarete.**

Bai. Lehenengo egunean Aretxabaletan egingo dugu lo, Galartza auzoan. Bigarrenean, aldiz, Arantzazun. Bigarren egunean Urkulutik ere pasatuko gara, eta bertako proiektu urbanistikoari buruz zerbait gehiago ikasiko dugu.

**Zenbat jende espero duzue aurtengo Eskola Ibiltarian?**

Egia esan plaza mugatuak izaten dira. Aurreko urtean 60 bat pertsona elkartu ginen, eta aurten ere antzera ibiliko gara. Ez dugu masifikaziorik nahi, partaideen artean elkar ezagutzea lortu nahi dugu.

# Hainbat debagoiendar 18/98 sumarioagatik auziperatuta

*Epaiketak has daitezela eskatu du Molina fiskalak*

Z.V.M.

**18/98 sumarioa duela bost urte hasi zen. Aste honetan jakin dugu Enrique Molina fiskalak epaiketak hastea eskatu duela. Epaiketaren eguna noiz izango den jakiteko goizegi den arren, hainbat debagoiendar auziperatuta daude sumario horretan.**

Bost urte pasa dira Baltasar Garzón epaileak 18/98 sumarioa hasi zuenetik. *Egin* egunkaria eta *Egin Irratia* ixtearekin hasi zen. Aste honetan, Espainiako Auzitegi Nazionaleko Enrique Molina fiskalak 61 auziperatuak epaitzeko agindua eskatu du.

Horretarako, Molina fiskalak bost orriko txosten bat helarazi zion Entzutegi Nazionaleko hirugarren aretoari. Bertan, 61 inputatuekin batera, fiskalak sumarioa ixtearen berrespena eta ahozko epaiketa irekitzea eskatu dio Aretoari.

Aipatu beharrekoa da auziperatu horietariko batzuk ibarrean bizi direla. Oraindik ez da zehaztu epaiketak noiz izango diren. Fiskaltzak sei hilabete baino gehiago eman ditu Garzon epaileak eginiko instrukzioa aztertzen, normalean hamar egunetan egiten den lana. Orain akusazio partikularrari dagokio lan hori egitea, eta ondoren defentsak aztertu beharko du. Ados dagoen edo ez erabaki ondoren, horren kontrako inolako neurririk eskatzen duen erabaki beharko du. Beraz, epaiketa eguna aurre zehaztea nahiko zaila da.

# Fagor Arrasateren historia laburbildu dute liburu baten

*1956tik 2002ra arteko bizipenak jaso dituzte egileek*

Z.V.M.

Amaia Irizar eta Arianne Kareagak *Arrasate, kooperatiba baten ibilbidea* liburua argitaratu berri dute. Bi egileak HUHEZIko Enpresarako Humanitateetan lizentziatuak dira. Liburua egiteko bi urte behar izan dituzte.

Kooperatibako bazkide guztien artean banatu dute. Hasiera batean ez zuten salgai ipintzeko asmorik, baina hainbat eskaera jaso ondoren, Hire liburu dendan 18 eurogatik aurki daiteke edonoren eskura.

Liburuak 400 orrialde ditu, 8 kapitulutan banatuta. Horietan elkarrizketak, kontakizun eta pasadizo ugari aurki daitezke. Horiekin batera, dokumentu historikoak, grafikoak... Liburuan, atzoko eta gaur egungo argazkiak aurki daitezke.




## 'Busti Zaitez' kanpaina egin zuten Arrasaten

Joan den domekan Esklerosi Anizkoitzaren eguna ospatu zen. Arrasaten lehenengoz egin zuten Busti Zaitez kanpaina. Bi helburu nagusi zituzten antolatzaileek. Informazioa eman eta jendea sentsibilizatzea, bata. Bestea, Esklerosi Anizkoitza duten gaixoei zerbitzu gehiago eman ahal izateko dirua lortzea. Nahiz eta eguraldiak askorik lagundu ez, gerturatutakoek beraien metroak egin zituzten igerian kanpainaren alde. Horrez gain, informazioa eman eta materiala saltzeko mahaiak jarri zituzten . /Z.V.M.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Bergara eta Antzuola lotzen dituen GI-632 errepidea zabalik dago eguaztena ezkero

Bi hilabetez itxita egon eta gero, eguazten goizean zabaldu zuen Diputazioak Bergara eta Antzuola lotzen dituen GI-632 errepidea. Bergarako Udalak erabaki zuen ixtea, maiatzaren 10ean errepide ondoan dagoen harrobi zaharrean lur eta harri jauziak gertatu eta gero. Jauzien ondoren, harrobiak ekar lezakeen arriskua neurtzeko behin behineko azterketa egin zuen Diputazioak, eta errepidea itxita mantentzea erabaki zuten, azterketa sakonagoa egin arte. Azterketa hori bukatu dute, eta uste zena baino arrisku txikiagoa du harrobiak. Eta horregatik zabaldu zuten eguaztenean. Hala ere, hormigoizko plakak jarri dituzte, harriak eroriz gero, haiei eusteko. Bergarako alkate Victoriano Gallastegik esan duenez, Udalean oraindik ez dute txostenaren berri./E.A.

### Arrasateko solidarioek Itoitzera irteera antolatu dute, bertako egoera ezagutzeko

Itoitzera bisita antolatu dute Arrasateko solidarioek bihar, uztailak 12, zapaturako. Itoitz ingurua ezagutzea eta bertako urtegiaren proiektua eta honen ondorioak azaltzea dira irteeraren helburu nagusiak. Itoitzeko Koordinadorako Patxi Gorraiz gidari dutela ibarretik hara joandakoek Irati ibaian gora egingo dute ibilbidea gero Urrobi errekatik jaisteko. Bidean Itoitz inguruak ikusiko dituzte eta urak estaliko dituen herriak zein diren ere jakingo dute. Bide batez Itoitzeko urtegiaren proiektua dela eta gertatu diren gora beherak ere kontatuko ditu Gorraizek. Inork Itoitzen inguruko zalantzarik izango balu bertan argitu ahal izango du. Interesatuek bihar zapatua, Arrasateko Arbolapetan dute hitzordua goizeko 9:00etan. /I.A.

### Erretiratuek sinadurak batu dituzte Toledoko Itunean ordezkariak izateko

Debagoieneko erretiratuek eta pentsionistek, espainiar estatuko gainontzekoekin batera ordezkaritza izan nahi dute Toledoko Itunean. Gizarte segurantzako foro honetan beraiei dagozkien gaiak aztertzen dituzte, besteak beste, pentsioen inguruko politika. Beraz, derrigorrezkotzat jotzen dute, oraindik Toledoko Itunaren ordezkariak biltzeko data zehatzik ez badago ere, hurrengo bileran euren defentsan lan egingo duen ordezkaritza egotea. Horretarako, sinadurak bildu dituzte Debagoieneko erretiratuen elkarteetan eta gero Donostiara eraman, bertan autonomia guztietako sinadurak bildu eta Madrilera, UDP, erretiratu eta pentsiodunen elkartera bidaltzeko. Uztailaren 8an amaitu zen sinadurak biltzeko epea eta orain ekimenak ondoriorik baduen ikusi beharko da /I.A.

### Enpresa direktiboentzako masterra aurkeztu du Mondragon Negozio Eskolak

Mondragon Negozio Eskolak (MONE) MBA (Master in Business Administration) Executive masterra aurkeztu zuen atzo Oñatin duen egoitzan.Enpresa eta erakunde zuzendarientzako ikasketak dira eta urrian hasiko dituzte, ikasturtea datorren urteko ekainera arte luzatuz. Ikastaroan parte hartuko duten zuzendariek arreta pertsonalizatua jasoko dute eta baita internet bidezkoa ere. Master honetan gai teknikoez gain, zuzendaritza ezagutzak jasoko dituzte partaideek, hala nola,lidergoa menpekoei nola helarazi, talde bat nola zuzendu... Eskolak goi mailako irakasleek emango dituzte; tartean gai teknikoetan eta gestiogintzan adituak diren pertsonak daude. Iaz jarri zen abian masterra, eta izandako arrakasta ikusita aurten bide beretik joko dutela esan dute./I.A.

## ELKARRIZKETA/ 'EGIN' EGUNKARIAREN ITXIERAREN ONDORIOAK

### MARTIN GARITANO / 'GARA'-KO ZUZENDARI ALBOKOA

# *"Euskal nazioa aldarrikatzen dugun guztion kontrako beste ekintza bat da"*

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Gizarte Segurantzak *Gara*-ri *Egin*-ek zuen zorra ordaintzeko eskatu dio. Baltasar Garzón epailearendako bi hedabideak berdinak dira. Gerta daitekeen ondorio bat egunkariaren enbargua da. Egoera nola bizi duten azaldu digu *Gara*-ko zuzendari albokoak.**

GOIENKARIA

**Bergararrak dioenez, *Gara*-ko langileek duten arma nagusia indar morala da**

**_Egin_-en zorra _Gara_-ri ordaintzeko eskatzen diote.**

*Egin* itxi zutenean, bere zorra 600 milioi pezetatakoa zen, eta orain 200 milioi gehiago omen dira. Jende guztiak badaki horrek ez duela ez buru eta ez hankarik. Azken batean, zorra *Gara*-ri leporatu ahal izateko enpresaren baitan jarraipen bat egon beharko litzateke, eta hamaika ezaugarri izan beharko genituzke komunean. Eta ez da horrela. Arriskua, Gizarte Segurantzak premiamendu bidez gure ondareak enbargatu ditzakeelako dator.

**Noiztik zenekiten horrelako zerbait gerta zitekeela?**

*Egin* itxi eta urtebetera Baltasar Garzón epaileak eginiko adierazpen batzuetan, bi egunkarien artean jarraipena zegoela esan zuen. Gure erantzuna bestelakoa izan zen; jarraipena egotekotan ideologikoa zen. Beraz, gaur egun bizi dugun mehatxua politikotzat har dezakegu.

**Neurri berezirik hartu al duzue egoera honen aurrean?**

Hartu ditugun neurri guztiak legalak izan dira. Gure abokatuek errekurtso ugari jarri dituzte epaitegietan, eta arrazoia emango digutelakoan gaude. Eta beraiek ere badakite Europako Epaitegietan arrazoia emango digutela.

**Zer nolako erantzuna jaso duzue euskal gizartearen aldetik?**

Euskal intelektual talde batek mobilizazio eta sentsibilizazio kanpaina jarri du abian. Besteak beste, Kirmen Uribe idazleak parte hartu zuen eta bi istorio labur eskaini dizkio *Gara*-ri eta adierazpen askatasunari, orokorrean.

Bestalde, euskal hedabideen aldetik, gehienek beraien elkartasuna adierazi digutela aipatu behar da. Arrazoi juridikoetan barik, politikoetan oinarritzen den arazoa dela uste dute gehienek.

**Gertatuko denari itxaron bitartean zer egin daiteke?**

Guk irabaziko dugula uste dugu, azken batean oinarri politikoetan sustengatzen den auzia da. Hala ere, momentu honetan *Gara*-ko langileok dugun armarik garrantzitsuena gure indar morala da.

*"Aspalditik genekien hau gerta zitekeela; hala ere jarritako errekurtsoak irabaziko ditugula uste dut"*

**Zer lortu nahi da adierazpen askatasunari eraso eginda?**

Duela bost urte ez genuen uste Espainiako Gobernua hedabideak ixteko gai izango zenik, eta *Egin* eta *Egin Irratia* itxi zituztenean, harrituta, oker geundela ikusi genuen. Horren haritik hainbat hedabide itxi dira Euskal Herrian. Eta denek komunean gauza bat dute: euskal nazioa aldarrikatu izana. Bide hori jarraitzen duen edonoren kontra ekintza judizialak etorriko dira. Udalbiltzak pairatu du errepresioa, alderdi politikoak legez kanpo utzi dira, eta abar. Azken batean Aznarrek euskal abertzaletasuna betiko zapaldu nahi du, eta inolako lotsarik gabe ekin zion ibilbide horri. Eta duda izpirik gabe, horretan jarraituko du. Horregatik, abertzaleon kontrako erasoa izan dela argi utzi behar da, jendea mugitu arazteko.

LAN ESKAINTZA
Haurtzaindegietarako eta zentro publikoetarako dealdiak laster
HAURTZAINDEGIKO LANGILEAK
Haurtzaindegian LH-2 eskatzen da
Informa zaitez!
943 444 509

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

publidenak.
Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.
• Enpresetara bisitak
• Enpresa-opariak
• Promozioak
• Publizitate-artikuluak
• Gabonetarako otarrak
• Artikulu pertsonalizatuak
• Diseinua. Arte grafikoak.
• Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
• Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
• Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
• Trofeoak. Txapela bordatuak.
• Era guztietako errotuluak.
• Seinaleak, plaka ofizialak.
• Pankartak eta banderak.
• Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak
Edozein kopuru. Epe laburrak. Aurrekontuak konpromiso barik. Erakusketa zabala.
HELBIDE BERRIA:
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE
TEL.: 943 77 06 09 (4 linea)
FAXA: 943 71 23 77
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11

# Debagunek antolatutako herri jolasetan herri kirolak, euskara probak eta jakintza lehiaketak

*Finalistak goizeko hamaiketan elkartuko dira Oñatin, eta baserri turismo baten asteburua igarotzeko sariagatik lehiatuko dira*

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Domeka honetan jokatuko da Debagunek antolatu dituen herri jolasen finala. Oñatin batuko dira, 11:00etan, Herriko Plazan. Hainbat proba egin beharko dituzte, eta saria asteburu pasa baserri turismo baten izango da.**

Ibarreko euskara elkarteek bailara osoa bilduko duen ekitaldi bat antolatu zuten. Euskararen inguruan eginiko ekitaldia. Asmoa zen herri bakoitzean taldeak sortu eta hainbat proba igarota kanporaketak ospatu eta horien arteko finala jokatzea.

Eta horrela egin zuten. Deialdiari ondo erantzun zioten Oñati eta Bergaran. Ekainaren 10etik 12ra bitartean, Mendekoste jaietan egin ziren lehen kanporaketak. Lander Eskudero Bergarako Jardun euskara elkarteko kidearen esanetan, jendeak primeran pasatu zuen kanporaketetan. Probak bazkalostean egin ziren, eta horrek zerikusia izan dezakeela uste du Eskuderok. Baina ez da kanporaketa bakarra izan. Bergaran 30 bat lagun aurkeztu ziren, eta horren harira, lau kanporaketa egin behar izan dituzte.

### ZENBAIT ARAZO

Bergara eta Oñati aldean jende ugari animatu da ibarreko euskara elkarteek antolatutako probetan parte hartzera. Baina esan behar da ez dela berdina gertatu beste herri batzuetan: jende gutxiago apuntatu zen, eta, hori dela eta, ez dira horrenbeste kanporaketa egin.

Arrazoia zein den ez dago oso argi. Baliteke Bergara eta Oñati aldeko jendeak lotsa txikiagoa izatea. Hala ere, herri guztietan ekintzak egiteko aukera izan dute azkenean.

Zapatu honetan izango da finala. Oñatiko Herriko Plazan emango zaio hasiera, goizeko hamaiketan. Herri jolasetan parte hartzera gerturatuko den jende kopurua 20 lagunekoa izatea espero dute antolatzaileek. Eguraldia lagun izatea litzateke egokiena, baina horrela ez balitz, beste tokiren batera joango direla aipatu digu Landerrek. Ordu eta erdian egingo dituzte ekintzak finalistek. Beraz, goizean izanik, oraingoan ez dute bazkaririk egiteko asmorik. Hala ere, pertsona guztiak animatu nahi izan dituzte, euskara elkarteetatik, herri arteko taldeen probak ikustera eta norberak gustukoen duen taldea animatzera.

Horrez gain, irabazleak aukeratzeko epaimahaia egongo da. Hori osatuko dutenak euskara elkarteko kideak izango dira. Aretxabaletako euskara taldetik, Eskoriatzakotik, Arrasatekotik, Bergarakotik eta Oñatiko elkartetik pertsona bana hartuko dira. Horiek izango dute proba guztietan hoberenak nortzuk diren aukeratzeko ardura.

Finalean irabazten duen taldearendako sari bakarra izango da. Garaile irteten den taldea asteburua pasatzera baserri turismo batera joango da. Saria hori izanik, pentsa liteke herri jolasetan arituko direnek ahalegin berezia egingo dutela saria eskuratzeko. Hala ere, nahiz eta irabazi ez, ordu eta erdi hori ongi igarotzea, barre egin eta eginiko hanka-sartzeetatik ikastea da helburua. Horrez gain, euskal giroan aritzeko aukera paregabea da, eta ohiko ekintzetatik at dagoen zerbaitez gozatzekoa. Antolatzaileek, hurrengo urteari begira, herrien arteko topaketa edizio berria antolatzeko asmoa adierazi dute.

### HIRU PROBA EGONGO DIRA FINALEAN

**Euskara elkarteek antolatutako herri jolasetan hainbat ekintza egin beharko dituzte finalera iritsi direnek. Hiru proba dira guztira. Lehena, herri kirolei dagokiona litzateke: txingak, zaku lasterketa eta lokotx bilketa. Gainditu beharreko bigarren proba euskara frogak dira: bertso idatziak egin, euskarazko irainak bota, eta jendea animatuz gero, txiste, pasarteak kontatu. Hirugarren eta azken froga jakintza lehiaketari dagokiona litzateke: jakintza orokorreko galderak egingo zaizkie finalistei, eta horrekin batera, ibarrari buruzko galderak.**

# Gobernu batzordeak osatzen ari dira apurka, ibarreko herri gehienetan

*Lau herritan erabakita dute zein izango den udalaren funtzionamendua*

JULEN IRIONDO/ENEKO AZKARATE

**Ibarreko udaletako batzordeak eta hauetako arduradun eta kideak zeintzuk izango diren, eta udalen funtzionamendua zelakoa izango den erabaki barik dute oraindik udal batzuetan.**

Antzuolako Udalak joan zen ekainaren 26an erabaki zuen agintaldi berrirako udalaren funtzionamendua zein izango zen. Osoko Bilkurak hilean behin egingo dituzte, egubakoitzetan, goizeko 10:00etan. Gobernu batzordea eratzea ere erabaki zuten eta berau EAJ-EA koalizioko hiru zinegotzik osatzea ere bai. Aramaion, EAJ-EAko zinegotziek izango dute Gobernu batzordearen eta gainerako batzordeen ardura osoa, koalizioak eskuratu ditu-eta zinegotzi guztiak.

Eskoriatzan eta Oñatin, ostera, oraingo astean batu dira Udalbatzak; Oñatin atzo, eguena, eta Eskoriatzan, gaur. Oñatin, koalizioko kideek osatuko dute Gobernu batzordea: EAJko lauk eta EAko bik. Batzorde informatiboetako buruei dagokienez, hamarretik zazpi jeltzaleak izango dira, eta hiru EAkoak. Eskoriatzan, berriz, ez da Gobernu batzorderik izango. Batzorde informatzaileetako buruei dagokienez, alkatearen asmoa da udaleko ardurak hauteskundeetan ordezkaritza lortu zuten guztien artean banatzea.

*Arrasaten negoziazioetan ari dira EAJ-EA, Aralar eta Ezker Batua, Gobernu taldea osatzeko*

Aretxabaletan zehazteke dago oraindik ze alderdiren artean eta ze kopurutan banatuko dituzten gobernu batzordea osatuko duten 5 kideak, eta baita batzorde informatibo desberdinak ere. Litekeena da EAJ-EA, Aralar eta EBren artean banatzea ardura guztiak. Bergaran ere ezer erabaki barik dago. Indar politikoak negoziazioetan ari dira. Kontuan izan behar da, hala ere, koalizioak erabateko gehiengoa lortu zuela hauteskundeetan.

Elgetan, EAJ-EA eta Aralar negoziatzen ari dira oraindik. Lau eta hiru zinegotzi lortu zituzten hurrenez hurren. Ziurrenik koalizioko bik eta Aralarreko kide batek osatuko dute Gobernu batzordea. Arrasaten, azkenik, EAJ, Aralar eta EB negoziazioetan ari dira. Alkatearen asmoa da Udalaren funtzionamenduan aldaketak egitea eta, horretarako, hainbat batzar egin ditu arloetako teknikari eta arduradunekin.

## Harrera ona beira birziklatzeko kanpainak

Debagoieneko Mankomunitateak ostalaritza-establezimenduetan beirazko hondakinak aparte biltzeko kanpaina jarri zuen abian. Bisitatutako establezimenduen %94k Birziklatzen Laguntzeko Konpromisoa izenpetu dute. Establezimenduan sortutako birazko hondakinak bereiztea eta hurbileko igluetara eramatera konprometitu dira horrela. Iglu berdeetan giltzarekin irekitzen diren zulo handiagoak erabiliko dituzte, eta gurpildun ontzi bat eman zaie ontzietara hondakinak errazago eramateko. /Z.V.M.

ANTZUOLA

## Jaien atarian, bazkaria egingo dute domekan erretiratuek

Herriko jaiak gainean ditugu, eta urteroko ohiturari jarraituz, herriko erretiratuek bazkaria egingo dute jaien aurreko asteburuan. Etzi, domeka, izango da bazkaria, Udal Pilotalekuan, 14:30ean.

Herri bazkari horren aurretik, baina, meza izango dute goizean erretiratuek; 11:30ean izango da meza, parrokian, eta Bergarako Erretiratuen Abesbatzak abestuko du bertan.

Mezaren ostean, berriz, kontzertu laburra eskainiko du abesbatza horrek, elizan bertan. /A.I.

MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Eguenean, San Kristobal eguna, Fidel Eizagirre abadeak hainbat ibilgailu bedeinkatu zituen Aldaiegia auzoan, ohiturari jarraituz

Eguenean San Kristobal izan zen, gidarien zaindaria, eta herritar ugari batu ziren Aldaiegia auzoan. San Kristobal ermita dago hantxe, eta auzoko jaiak ospatzen dihardute egunotan. Ekitaldien barruan, eta urteroko ohiturari jarraituz, han batutako asko autoa bedeinkatzera joan ziren. 12:00etan meza esan zuen Fidel Eizagirre abadeak, eta mezaren ondoren autoak bedeinkatu zituen.

San Kristobal jaiak ospatzeko ekitaldi gehiago egongo dira asteburuan: bihar, zapatua, Arkaitz Allur taldeak alaitutako erromeria egongo da, 23:00etan, eta domekan, 12:00etako meza nagusiaren ostean, auto bedeinkazioa egongo da berriro. Horren ondoren, bertsolarien emanaldia eta umeendako jolasak egongo dira. /M.B.

ARETXABALETA

## Euskal Presoak Euskal Herrira Astea antolatu du EPEH plataformak

Azken urteotan moduan, aurten ere uztailean egingo dituzte EPEH plataformako kideek Euskal Presoak Euskal Herrira Asteko ekitaldiak. Hain zuzen ere, datorren martitzenetik (hilak 15) zapatura bitartean egingo dituzte ekintza horiek. Besteak beste, film emanaldiak, Xabier Amurizaren eskutik presoen gaineko solasaldia eta Kurtzebarri mendira irteera egingo dituzte.

Euskal Presoak Euskal Herrira plataforma 1999an sortu zuten, eta harrezkero presoen eskubideak defendatzeko lanean dabil. /A.L.

ARAMAIO

## Domekan San Kristobal eguna ospatuko dute aramaiarrek

Uztaileko bigarren domeka izanda, San Kristobal eguna ospatuko dute aramaiarrek domekan. Eguerdian hasi eta iluntzera arteko ekitaldiak antolatu dituzte uribarriarrek bisitari guztiendako. Hala, goizean, meza, dantza saioa eta erromeria izango dira, guztia pintxoek, saldak eta ogitartekoek lagunduta. Bazkaltzeko astia utziko dute gero; bazkalostean Bolo Txapelketa izango da gura duten guztiendako, eta gero, berriro ere dantza egiteko aukera egongo da Gau Alai taldearen eskutik, 19:00ak arte. /U.M.

OÑATI

## Hainbat ekitaldi antolatu dituzte udako 'Kalean' egitarauaren barruan

Uztailaren 30ean hasi eta abuztuaren 31ra arte hainbat ekitaldi antolatu dituzte Oñatiko Gazteek eta Gaztelekuak, Kalean izeneko programarekin.

Aurtengoa ekitaldi sorta hori antolatzen duten zortzigarren aldia izango da. Helburua da, besteak beste, udako oporraldietan herrian geratzen diren herritarrei, gazteei, batez ere, ondo pasatzeko egitarau bat aurkeztea. Abuztuko bigarren hamabostaldian antolatu dituzte ekitaldi gehienak, jende gehiago egoten da-eta herrian.

**MUSIKA, ZINEMA ETA ANTZERKIA**

Askotariko ekitaldiak antolatu dituzte: kontzertuak, antzerki emanaldiak eta laburmetrai emanaldia, hain zuzen ere. Uztailaren 30ean, eguaztena, kontzertua izango dugu San Anton plazatxoan, 22:30ean. Zarauzko bi taldek emango dute kontzertua, Delorean eta Makala DJa, hain zuzen ere.

Abuztuaren 22an, egubakoitza, laburmetrai emanaldia eskainiko dute plazako pilotalekuan, gaueko hamarretan; Koldo Almandozen *Belarra* eta Asier Altunaren *Topeka* filmak ikusteko aukera izango dugu hantxe.

Hilaren 30ean, Potenkin, Zein eta Tokyo Sex Destruction taldeen kontzertua izango dugu, 22:30ean, Atzeko Kalean. Bukatzeko, hilaren 31n, Trapu Zaharra antzerki taldearen *Elvis, vete ya* kaleantzerkia ikusteko aukera izango dugu, herriko plazan. /A.I.

### Zertzelada

**Oñatiko Gazteek eta Gaztelekuak antolatutako ekitaldiek udako oporraldietan herrian geratzen direnei ondo pasatzeko aukera eskaintzen die.**

ARRASATE

## Anorexiaren gaineko liburua idatzi du Amaia Arroyo arrasatearrak

Bizipen propioetan oinarrituta, anorexiaren gaia landu du Amaia Arroyok *Yo contra yo, la cara oculta de Anna* liburuan. Inprentan dago liburua, uztailaren 17an iritsiko da Arrasatera, eta 22an aurkeztuko du. Gero, tabernetan eta gazteak ibiltzen diren lekuetan ipiniko du salgai, helburua gazteei laguntzea da-eta. Liburua salduz eskuratuko dituen etekinak anorexiari aurre egiteko lanean diharduen ACABE elkarteari emango dizkio. Amaia Arroyok kontatu digu orain dela urte eta erdi diagnostikatu ziotela anorexia. Bere esperientziaren kontakizuna lagungarri izango delakoan erabaki zuen liburua idaztea. /U.M.

U.M.

**Uztailaren 22an jarriko dute salgai liburua.**

ESKORIATZA

## Zinema emanaldiak egingo dituzte uztailean barrena Herriko Plazan

Astelehenean hasi eta uztailaren 30era arte zinema emanaldiak izango dituzte herritarrek Herriko Plazan. Udaleko Kultura Sailaren ekimena da, eta ez da antolatzen duten lehenengo aldia. Astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan emango dituzte filmak, 22:15ean; batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz.

Gaur, egubakoitza, *Límite vertical* emango dute, gaztelaniaz; hilaren 14an, *Otsoen ituna*, euskaraz; hilaren 16an, *Mejor imposible*, gaztelaniaz; eta 18an, *Amelie*, gaztelaniaz. /M.A.

ELGETA

## Etxeko traste zaharren bilketa uztailaren 17an izango da

Bi astean behin egin ohi duten moduan, eguenean, hilaren 17an, etxeko traste zaharren bilketa egingo dute Elgetan. Hortaz, norbaitek zaborretara bota nahi dituen traste zaharrak baditu, 20:00etatik 22:00etara bitartean laga beharko ditu edukiontzien alboan; horren ondoren, zabor biltzaileek jasoko ditu trasteok. Traste zaharrak ordua baino lehen botaz gero, berriz, egun osoa geratuko da kalean, eta, horren ondorioz lurrean botata, hurrengo bilketa egunera arte. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

## Herritarrak Andramaixa jaiak prestatzen hasi dira buru-belarri

Irailaren lehenengo aste bukaeran Andramaixa jaiak ospatuko direla-eta, gatzagarrak hasi dira egitaraua prestatzen. Uztailaren 9rako jaiak prestatzeko Udalak egindako batzar deialdian jende ugarik hartu zuen parte. "Udalbatza osatzen dugunok berriak gara honetan. Denbora luzerik ere ez dugu, gainera. Aurreko urteotako egitaraua hartuko dugu oinarri. Baina gatzagarrek merezi duten jaiak izan dezaten ahaleginduko gara", esan zigun kultura zinegotzi Jon Sasiainek. /A.G.

# Zabalik



JABIER ARANTZETA

## Geure onerako

**Espainiarren artean Don Jaime aginduan denetik izugarri egin du gora euskal abertzaletasunaren indarrak. Bera jardunean dabilenetik gero jarraitzaile gehiago ditu Ibarretxe Planak, esate baterako; eta hortik harantz daudenen indarrak ere ez pentsatu gutxitu direnik.**

**Hain dira neurriz kanpokoak esaten dituenak, hain dira zentzugabekoak, ezen errezeloa daukat espainiarren artean ere gero eta gehiago direla gauzak ez direla horrela pentsatzen dutenak eta "estos vascos deben de tener alguna razón" uste dutenak.**

**Eta "estos vascos"-en artean ere, hain beldurgarria ikusten dugu Don Jaimeren mehatxua, ezen gero eta elkartuago gaude hain garbi ikusten dugun mehatxu horren aurrean.**

**Honen ondorioz garbi dago hemendik aurrera zer egin behar dugun: ahalegindu gaitezen, inon diren hauteskunde guztiak galdu arren, Don Jaimek agintean jarrai dezan. Azal dezagun Espainian derrigorrezkoa dutela Don Jaime moduko bat euren aberriaren batasun santua mantendu ahal izateko, (bide batez ez litzateke batere gaizki egongo sindikalistaren seme demokratikoa ere berriro bere partiduan aginduan jartzea Don Jaimeri laguntzeko eta abertzaletasunak izugarrizko aurrerakada egiteko).**

**Orain, gerta dakigukeen gauzarik txarrena zerbait agintzen duen espainiarren batek hau irakurri eta ondorioak ateratzea izango litzateke; orduan bake apur bat edukiko genuke eta agian Espainian jarraitzea hain txarra ere ez dela pentsatuko genuke. Baina ez dut uste horren arriskurik daukagunik, espainiarrek ez daukatelako eurena ez den hizkuntza arrarotan ezer irakurtzeko ohiturarik.**

# Gutunak

## Egia aldatuak

Arrasateko panorama politiko-sozialean informazio –desinformazio– bolada handia izaten ari da, eta obligazioa daukat kontzienteki aldatu dituzten egia batzuk argitzeko, baita inola ere egia ez diren beste batzuk argitzeko ere:

Gauza argi batetik hasiko gara: Herri Anitzako eta AuBko kandidaturak legez kanpo utzi zituzten Arrasateko herriaren nahiaren kontrako prozesu antidemokratiko baten. Ezker abertzalearen kandidaturen legez kanporatze prozesu luze horretan, kandidaturok ez zigortzeko hainbat formula izan zituzten eskura Herri Anitzak eta AuBk. Pare bat adibide: ETAren biolentzia guztiz eta engainu barik errefusatzea (sinesgarri izan litekeen zerbait esatea) edo listak osatzea aurrez Batasuna-EH-HB alderdietako kargudun hautatu izan ez diren pertsonekin; bigarren formula hori Euskal Herriko herri baten baino gehiagotan aplikatu zuten, eta emaitza positiboa izan zen.

Hala ere, Arrasaten, gainerako euskal herrietan moduan, frentismoaren eta trentalkaren alde egin zuten; Udalean enkistamendu politikoko eszenatokia sortzeko; gobernuari eta justiziari (?) pultsua egiteko, ondorengo emaitzarekin. Zehatz-mehatz, ETAk desiratzen zuen eszenatoki politikoa. Bestalde, eta hauteskunde hauek defizit demokratiko gehigarria izan duten arren, egia esatearren ez dira bakarrak izan. Izan ere, urteak eta urteak daramatzagu hauteskundeei aurre egiten defizit demokratiko izugarriarekin, ETAk eta haren ingurukoek PPko eta PSOEko kargu publikodunen gain eragiten duten presioa dela-eta. Bada hor norbait horretaz gogoratzen dena?

Beste pauso bat aurrerago egin, eta hel diezaiogun ordezkaritza arazo bati. Izan ere, Herri Anitzak eta AuBk ezker abertzalearen ordezkari bakar eta egiazko bezala izendatu dute euren burua. Baina hori ez da guztiz zuzena. Ezker abertzalea oso mugimendu plurala da (batzuek gura luketen baino pluralagoa), eta ez dago ordezkaritza politiko batera mugatua. Ez ditugu ahaztu behar, inola ere ez, ezker abertzalearen beste mugimendu politiko-sozial batzuen presentzia: Aralar, Zutik eta Batzarre, besteak beste.

Eta Ezker Batua faxistatzat jotzen duten akusazioei dagokienez, uste dut ez dudala lanik hartuko horiei erantzuten. Edozelan ere, Ezker Batutik gure esku dagoen dena egingo dugu Herri Anitzaren eta Arrasateko herritar guztien hitza Udalera hel dadin; egiazko demokrazia parte-hartzailea eginez; gure Udala demokratizatuz; eta guztien eta guztiendako Arrasate eraikiz.

ANDER RODRIGUEZ (EB-KO ZINEGOTZIA)
Arrasate

## San Martzialak

Joan dira aurtengo Bergarako San Martzialak. Urtero bezala nahikoa ardo, abesti, dantza…, eta giro onean?

Aurten, betiko legez, garaiz tokia hartu, Udalari mahaiak eta aulkiak alokatu eta San Martzialak prestatzen hasi ginen. Koadrilako gehienok ez genekiena zera zen: gure arteko bi lagun, sorpresa emateko asmoz, mahai bat egiten hasiak zirela; oholak lortu, moztu, josi, forratu… Zapatu goizean, beraz, eta besteoi ezer esan gabe San Martzialera igo eta 15 lagunendako mahaia eta jarlekuak egin eta muntatu zituzten, bi lagunen artean.

Arratsaldean, eta gehienok ezer ez genekienez, San Martzialera igo ginen alokatuta geneuzkan mahaia eta jarlekuak hartzera, tartean bi lagun hauek, besteon aurrean planta egin behar baitzuten. Gure lagunen asmoa sorpresa ematea bazen, eman ziguten bai. Guk hartutako lekura joan ginenean, han Udalari alokatutako mahai bat zegoen, 6 mutil lasai asko bertan jarrita eta ondoan sekulako egur pila txiki-txiki eginda.

Imajina ezazue zer nolako egoera: bi lagun hauek denbora guztian gauza bera errepikatuz: "ezin dut sinistu, ezin dut sinistu", eta beste guztiok ezer ulertzen ez genuela.

Zer gertatu zen?: mutil hauek (eta hori diogunean ia 40 urteko mutilei buruz ari gara) "beraien tokira" joan zirenean beste mahai bat ikusi zuten (gurea) eta mahai hau guztiz apurtu ondoren, beraiena jarri zuten, hura beraien urteroko tokia baitzen.

Toki hura beraiek hartu ei zuten eta hau, agian, egia izango da, baina guk ziurtatu dezakeguna zera da, guk toki hura hartu genuenean han ez zegoela inolako zintarik. Norbaitek kendu zituela? Hori gutxienekoa da; hitz egiteko aukera eman izan baziguten nola edo ala konponduko genuke arazoa.

Bukatzeko, ez baitute gure denbora merezi, galdera pare bat: momenturen batean pentsatu al zuten mahai hura prestatzeko zenbat ordu lan egin ziren? Jokoan zegoen guztia mahaia metro batzuk gorago edo beherago ipintzea zenean, beraien erantzuna gure mahaia guztiz txikitzea izan zen. Jakin al daiteke zer egiten duten jokoan dagoena zerbait garrantzitsua denean?

BERGARAKO LAGUN TALDE BAT
Bergara

## Herri arteko lehiaketa

Bihar, zapatua, Oñatiko plazan, euskararen inguruko herri arteko lehiaketa jokatuko da eta bertan eskualdeko herri nagusienen ordezkariek parte hartuko dute. Lehiaketa hiru frogatan oinarrituko da:

- Herri jolasak: zaku lasterketa, txinga lasterketa eta lokotx bilketa.
- Euskara frogak: bertso, txiste eta losintxak ahotan hartuta.
- Ezagutza frogak: jakintza orokorreko galderekin batera Debagoienari buruzko galderak nahastuz.

Dei egiten dizuegu txapelketa ikustera etortzeko eta, bide batez, bakoitzak bere herriko taldea animatzeko. Zatoz!

DEBAGUNE
Debagoiena

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Enrike López Leioako irakasle kaleratuetako bat delako da ezaguna. Maiatzaren 15a ezkero *Desobedientzia eta Independentziaren aldeko ibilaldia* egiten dihardu. Aurreko aste bukaeran ibarrean izan genuen.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Zelan hasi zenuen desobedientziaren bidea eta zergatik?**

Orain dela 15 urte irakasle gisa hasi nintzen EHUko Kazetaritza Fakultatean. Hamabi urte daramatzat unibertsitatetik kaleratuta. Hasiera batean errebindikazio moduan hasi zen borrokagatik kaleratu ninduten beste ehun irakaslerekin batera. Guk lan kontratu bat eskatzen genuen, unibertsitateko langile izatea, alegia. Horrela, indarrean zegoen funtzionariotzari intsumisioa egin genion.

Desobedientziaren bide honetan hainbat arazo izan ditut. Hogeita hemezortzi eguneko gose greba luze baten, 30. egunean ertzainek atxilotu egin ninduten, eta epailearen aurrera eraman. Agintaritzarekiko desobedientzia leporatu zidaten, eta lehenengoz egin nuen desobedientzia epaitegian. Azken zazpi urteotan, bederatzi epaiketa, zortzi atxiloketa eta birritan kartzelaratu egin naute indarrez, eta guztietan berdina leporatu izan didate. Hala ere, badakit berriz gerta daitekeela, eta horrek ez nau kikiltzen.

**Zein da *Desobedientzia eta Independentziaren aldeko ibilaldia* delakoaren helburua?**

Antzina erabiltzen zuten metodoa berreskuratu nahi izan dut; hau da, herririk herri oinez joan eta jendearekin hitz egiten ibili naiz. Horrela, jendea desobedientzia egitera eta nork bere erabakiak hartzera animatu nahi izan dut. Gainera, ibilaldiarekin Euskal Herria hobeto ezagutzen eta zein aberatsa den konturatzen ari naiz.

**Zelako harrera egin dizute Euskal Herriko herrietan?**

Orokorrean harrera ona egin didate. Ikurrina bizkarrean eramanda erraz ezagutu nau jendeak, eta animuak eman dizkidate gehienek. Hala ere, esan beharra dago zenbait tokitan gutxi batzuen irainak jaso ditudala. Baina horiei ez diet arreta berezirik jarri, eta, gainera, aurrera jarraitzeko indarra eman didate.

**Arrasatera iristerako 1.415 kilometro egin dituzu bakarrik bidaiatzen.**

Bai. Bizkaiko eta Arabako herri gehienak bisitatu ditut, eta gure lurra zein ederra den ohartu naiz. Mutrikutik Gipuzkoara sartu nintzenean 1.302 kilometro nituen eginak, eta Deba ibarra bisitatzen 113 kilometro egin ditut. Dena dela, esan beharra dago ez dudala bakarrik bidaiatzen, nahiz eta errepidean ni bakarri ibili. Atzetik talde on bat dut, eta premiaren bat izanez gero berehala etortzen dira laguntzera.

**Lo egiteko toki arazorik izan duzu?**

Ia bi hilabete daramatzat etxetik kanpo. Gehienetan ezagunen etxean egin dut lo. Bestalde, momentuan ezagutu ditudan hainbatek euren etxera joateko gonbita egin didate askotan. Horrez gain, gaztetxe eta lokaletan lo egiteko aukera izan dut. Baina behin baino gehiagotan kalean lo egin behar izan dut, nahiz eta oso sarri ez gertatu.

**Noraino iritsi nahi duzu?**

Nire helburua Iruñeara iristea da. Oraindik heren bat bakarrik egin dut gutxi gorabehera, eta, beraz, bidaia luzea izango dela deritzot. Ziurrenik, uda osoa igaro beharko dut bidean nire helmugara iristeko. Deba ibarra utzi eta Irun aldera joango naiz. Bertatik Lapurdira, eta gero beherantz abiatuko naiz, Nafarroa aldera. Urratsez urrats ikusi beharko da zer egin eta nora heltzeko aukera dudan. Polikipoliki noa.

**Diozunez, desobedientzia alderdi eta erakundeetatik aparte geratu behar den zerbait da. Zergatik?**

Nire iritziz, garrantzitsua da bereizita egotea. Azken batean erakunde eta alderdi politikoek euren baitan arautegi bat izaten dute, eta horiek jarraituz, desobedientzia barik, obedientziaren bidea jarraitzen dutela uste dut. Gainera, desobedientziaren ondoren norberak aukeratzea dator, eta zenbaitzuek ez dute hori onartzen. Hori dela eta, zenbait alderdik ez dute nire ibilbidea begi onez ikusten.

Ibilaldian zehar, herri eta auzo gehienetan pertsona bat edo batzuk hartu dituten ibilaldiaren lekukotzat liburuxka batean apuntatzeko. Nire sentimenduari eutsiz, ez dut gogoz bilatzen agintarien sinadurarik, ezta jende aurrean agertzea gustuko dutenen sinadurarik ere. Era sinboliko honetan Euskal Herri elitistari bizkarra eman nahi izan diot, eta gainerako pertsonei aukera zabalagoa.

**Leioako Campusean egiten ari zareten protesta hamar urtez luzatu da.**

Bai. Hamar urte daramatzagu egunero pankarta baten atzean gure aldarrikapenak egiten. Hor ere sindikatu eta alderdi guztiak kontra izan ditugu. Azken batean nork bere erara, baina Euskal Herria funtzionarioz beteta ikusi nahi dute. Baina ez dira gustuko ez gaituzten pertsona bakarrak. Hainbat indar polizialek egunero gu bisitatzeko ohitura hartu dute. Eta zer esanik ez gure ideiekin bat egiten ez duten zenbait irakasleren jarrera. Horrek guztiak gure borrokarekin jarraitzeko indarra eman digu.

**Herri gehienetan hitzaldiak antolatu dira zure aldarrikapena aditzera emateko.**

Bai. Niri laguntzeko hamaika modu daude: lo egiteko tokia eskaini, eskuko telefonora deitu eta hitzaldiak antolatzea, besteak beste. Hitzaldien kasuan, gehienetan aukeratutako tokiak gaztetxeak izan dira. Horrela izan da Arrasaten eta Bergaran, esaterako.

Bidaia honetan ahalik eta jende gehienarekin hitz egin eta nire mezua zabaldu nahi izan dut. Gainera, gazteenei begira ahalegin berezia egiten saiatzen ari naiz, eta horretarako gaztetxeetatik igarotzea garrantzitsua da.

**EHUtik kaleratu zintuzten eta bi urte igaro zenituen kobratu barik irakasten. Ze oroitzapen duzu?**

Aspaldiko kontua da hori. Hala ere, denbora laburra izan arren, irakasle bezala ibili naizen urte onenak izan ziren niretako. Nahiz eta dirurik jaso ez, nire ideiekin bat egiten zuten ikasleei irakasten nien, eta ni ere erosoago sentitzen nintzen egoera hartan.

**Zer da egin duzun ibilbide luzean zehar zure arreta jaso duena?**

Batez ere euskaldunon eskuzabaltasuna handia dela ikusi dut. Lehen aipatu bezala, bi hilabetean sarri egin dut lo ezezagunen etxeetan. Hitzaldia entzutera joan eta gonbidatu nauen jendea izan da. Era berean, zenbait tabernatara joatean norbaitek ezagutuz gero, bazkaltzera edo zerbait hartzera gonbidatu naute sarritan.

Baina bada harritu nauen beste kontu bat: tokian tokiko hedabideek harrera ona egin didate orokorrean. Eurei esker, nire aldarrikapenaren berri emateko aukera izan dut.

Komunikabide handiei dagokienez, aldiz, zekentasunez jokatu dutela deritzot, ez dute-eta ibilaldiaren inguruko informaziorik eman. Ez dakit arrazoia zein izango den. Hala ere, esan behar dut hedabide handietan lan egiten duten hainbaten babesa jaso dudala.

**Hamabi urte daramatzazu irakasle lanetan jardun barik. Aurrera begira irakasle izan gurako zenuke?**

Egia esan, ez dakit berriz hasiko nintzatekeen irakasle lanetan. Urte mordoxka dira lanbide horretan ez nabilela. Hala eta guztiz ere, kalean jendeak irakasle kaleratu gisa ikusten nau, eta horregatik naiz ezagun. Nik momentu honetan ez dut nire burua lanbide horretako partaide ikusten. Beste batzuen iritziz ez naiz irakaslea; haiek uste dute ideiak muturreraino eramaten dituen norbait naizela. Baina ez dut unibertsitateko irakasle izateko gogorik. Azken batean gauzak ez direlako askorik aldatu; eta ez dut ahaztu nahi nire borrokaren hastapena funtzionario izateari uko egitea izan zela.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# *Enrike López*

'DESOBEDIENTZIA ETA INDEPENDENTZIAREN ALDEKO IBILALDIA' EGITEN DIHARDUEN EHU-KO IRAKASLE KALERATUA

# "Desobedientzia erakunde eta alderdietatik aparte egin behar da, nire iritziz"

IBILALDIAREN HELBURUA

**"Jendea desobedientzia egitera eta nork bere erabakiak hartzera animatu nahi dut ibilaldiarekin"**

HILABETEETAN IKUSITAKOA

**"Euskaldunon eskuzabaltasuna oso handia dela ikusi dut hilabeteotan: tokian tokiko hedabideek harrera ona egin didate; handien jarrera, aldiz, zekena izan da, ez dute-eta informaziorik eman"**

GORKA ETXABE

Oñatiko Udaleko eta Aloña Mendi taldeko ordezkariek kirol ekipamendu berria erakutsi zuten akordioa sinatu ostean.

# Arrikrutzen izena kamisetan

## Aloña Mendiko seniorren eskubaloi taldeak Udalaren babesa jasoko du

**Hiru hilabetez batzar eta negoziaziotan jardun ostean, Oñatiko Udalak eta Aloña Mendiko senior mailako eskubaloi taldeak akordioa sinatu dute. Hitzarmen horren arabera, datozen hiru urteotan jokalariek euren kamisetetan Arrikrutzeko Koben publizitatea izango dute.**

Taldea mailaz igo da, eta datorren denboraldia benetan garrantzitsua izango da. Senior mailako taldeak Espainian barrena jokatuko ditu partiduak, eta aukera polita izan daiteke Oñati inguruko turismoa sustatzeko, batez ere, oraindik zabaldu ez badituzte ere laster ikusgai izango diren Arrikrutzeko kobak. Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak aukera aprobetxatu du, eta, hala, jokalariek Arrikrutzeko koben publizitatea izango dute kamisetetan. Lehenengo elastikoa gorria eta zuria izango da eta bigarrena urdina eta zuria. Gainera, beroketa ariketak egiteko ere egin dituzte kirol jantziak.

### URTETAKO BABESA

Ez da Udalak eta Aloña Mendik batera jarduten duten lehen aldia, hogei urtez dihardute-eta lankidetzan. Udala ez ezik, eskubaloi taldea bera ere pozik azaldu da akordioarekin. Bide batez, aukera hori baliatu dute diruz lagundu duten enpresei, Fagorri, esaterako, eskerrak emateko.

Maila horretako taldeek sarritan diru arazoak izaten dituzte, eta taldea mailaz igo denez, gastuek ere gora egingo dute. Jokalariak ez dira profesionalak eta batzuetan eurek ordaindu behar izaten dituzte bidaiak. Udalak emandako dirulaguntzarekin (urtean 12.000 euro) gastu horiei aurre egin ahal izango diete. Taldea mailaz jaitsiz gero, dirulaguntza erdira murriztuko du Udalak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## *Kirolabur*

### **ATLETISMOA/**OÑATI

Hainbat atletismozale oñatiarrek herriko korrikalariak elkartuko dituen talde bat osatzeko asmoa azaldu dute. Taldean antxintxika egiten duen edozein oñatiarrek izango du lekua; adina, sexua eta kirol maila ez dira kontuan hartuko. Interesatuek Zubikoa kiroldegian eman beharko dute izena eta telefonoa, eta taldea sortu nahian dabiltzanak eurekin jarriko dira harremanetan, batzar bat egiteko, proiektua azaltzeko.

### **TXIRRINDULARITZA/**ANTZUOLA

Datorren uztailaren 13an, domekan, jokatuko da LVIII. Antzuola txirrindulari saria Iñaki Lete zenaren omenez. 19 eta 20 urteko txirrindulariek hartuko dute parte. 09:30ean Herriko Plazatik abiatuko dira partaideak, eta 125 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Antolatzaileen esanetan, 12:15ak eta 12:30ak bitartean bukatuko da proba.

### **TRIATLOIA/**DEBAGOIENA

Antxintxika Debagoieneko Trialoi Taldeko zortzi kirolarik Austriako Kärnten herrian jokatu den Ironman proban hartu dute parte. Uztailaren 6an izan zen lasterketa, eta partaideek, igeri egin ostean, Ironman probetan azkarrena den txirrindulari lasterketa egin zuten; gero maratoia egin zuten. Debagoiendarren artean azkarrena Julen Garitano antzuolarra izan zen: 89. postuan amaitu zuen lasterketa Julenek.

### **FUTBOLA/**ARETXABALETA

Joan den zapatuan, uztailaren 5ean, Gipuzkoako Futbol Federazioak batzar orokorra egin zuen Donostiako Arkitektura Fakultatean. Bertan, UDA-Almen emakumezkoen futbol taldeak Kirol Legez saria jaso zuen. Izendapen horren bidez taldearen kiroltasuna saritu dute; izan ere, Gipuzkoako emakumeen taldeen artean, denboraldian gutxien zigortu duten ekipoa izan da. Ligan eta Kopan hiru txartel hori besterik ez du jaso taldeak.

*Pozik ibili gura baduzu, hankak puntuan jar itzazu*

**ARRASATE ORTOPEDIA**

**Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua**

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
**Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea**

- **Oinaren azterketak:** tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
- **Umeak:** hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.
- **Materia bigunen erabilera:** oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
- **CAD/CAM sistema:** Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
- **Neurrira eginiko oinetakoak.**
- **AEBetatik inportatua.**

**BIZI KALITATE HOBEA.**

**GUZTIA ORDENAGAILUZ KONTROLATUA**

Maalako Errabala 8 • ARRASATE • Tel.: 943 77 20 78

**Bisita gaitzazu, www.ortopediaarrasate.com**

# Kanpotarrak txapeldun Aizkorrin

## Isa Casado arrasatearra bigarren emakumezkoa izan zen Zegama-Aizkorri maratoian

**Uztailaren 6an, San Fermin bezperan, jokatu zen Zegama Aizkorri mendi maratoia, Aizkorriko Lagunen Eguneko ekintzen baitan. 325 partaidek eman zuten izena, eta 291 lasterkari izan ziren helmugan. Fernando García Herreros madrildarra izan da aurten probako irabazle.**

Zegama-Aizkorri maratoiaren bigarren aldia izan da aurtengoa. Partaideek oso proba gogorra dela diote; hala ere, asko izan ziren Aizkorriko aldapetan gora eta behera antxintxika jardundakoak, baita haiek animatzera oinez joan zirenak ere.

Helmugara iristen lehena Fernando García Herreros madrildarra izan zen, eta haren ondoren sailkatu zen Juan Martin Tolosari alde handia atera zion. Juan Martin Tolosa bera izan zen iazko irabazlea, eta Garciak haren marka hautsi zuen, proba 4 ordu, 8 minutu eta 44 segundoan amaituta (errekorra 4 ordu, 14 minutu eta 23 segundoan zegoen). Madrildarra mendiko lasterketetan Espainiako txapeldun da gaur egun. Maratoia hirugarren tokian amaitu zuen korrikalaria, berriz, Kortezubiko Julen Araguela izan zen.

### EMAKUMEZKOAK

Iaz, emakumezkoetan, Rosa Lasagabaster eskoriatzarra izan zen irabazle, baina aurten ez du zorte bera izan. Izan ere, Bartzelonako Esther Hernández ek kendu dio lekua, Lasagabasterren errekorra ia ordubetean hobetuta. Guztira, 5 ordu, 8 minutu eta 52 segundo behar izan zituen proba amaitzeko.

Hala ere, debagoiendarrik ez zen falta izan emakumezkoen podiumean: Isa Casado arrasatearrak 5 ordu, 29 minutu eta 41 segundoan amaitu zuen proba, eta sailkapen orokorrean 114. postua eskuratu zuen. Emakumezkoetan hirugarren Yolanda Santiuste mendi lasterketetako Espainiako txapelduna izan zen.

AIZKORRIKO LAGUNAK

**Ezkerraldean, Isa Casado arrasatearra eta eskuinaldean, Joxe Mendiola oñatiarra, mendi maratoiko lehen debagoiendarra.**

Rosa Lasagabaster laugarren emakumea izan zen Zegamako helmugan, ibilbidea 5 ordu, 45 minutu eta 50 segundoan amaituta. Sailkapen orokorrean 158. tokian geratu zen.

Debagoiendar azkarrena, berriz, Joxe Mendiola oñatiarra izan zen: hamaikagarren lekuan amaitu zuen. Horretarako, korrikalariak 4 ordu 30 minutu eta 21 segundo behar izan zituen, irabazleak baino ia 23 minutu gehiago, hain zuzen ere.

Behe-lainoa izan zen probako oztopo nagusia. Izan ere, antxintxika egiteko eguraldi paregabea egin zuen arren, jaitsiera arriskutsu bihurtu zuen korrikalariendako.

Lasterka jardun zutenek ez ezik, bertara oinez gerturatu zirenek ere giro ezin hobeaz gozatu zuten. Asko izan ziren, besteak beste, *Sancti Spíritu* baselizan meza entzun ostean lasterketa ikustera joandakoak. Aizkorriko gailurrean eta Urbian ere ez zen jenderik falta izan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

### Debagoiendarren sailkapena

| POST. | IZENA | ABIZENAK | DENBORA | HERRIA |
|---|---|---|---|---|
| 11. | JOXE | MENDIOLA AIASTUI | 04:30:21 | OÑATI |
| 37. | ARKAITZ | LETAMENDI ANDUEZA | 04:54:48 | OÑATI |
| 41. | JOSEBA | BLAZQUEZ BELON | 04:56:10 | OÑATI |
| 48. | JOSEAN | KEREXETA LIZARAZU | 05:01:46 | BERGARA |
| 55. | XABIER | IRIBEKANPOS ZUAZABEITIA | 05:05:14 | ARRASATE |
| 59. | AITOR | UNAMUNO RUIZ DE AZUA | 05:07:49 | ARAMAIO |
| 81. | JABIER | MARTINEZ REMEDIOS | 05:17:05 | ARETXABALETA |
| 89. | FERNANDO | REZABAL GURIDI | 05:20:27 | OÑATI |
| 98. | JESUS MANUEL | GOMEZ BOTELLO | 05:25:33 | OÑATI |
| 103. | GORKA | FERNANDEZ PARRA | 05:26:44 | ARRASATE |
| 107. | FERNANDO | URIBESALGO IÑURRATEGI | 05:27:35 | ARETXABALETA |
| 113. | JOXEAN | LARREA LEIBAR | 05:29:36 | OÑATI |
| 114. | ISA | CASADO GALLEGO | 05:29:41 | ARRASATE |
| 130. | XABIER | OSA IZAZPI | 05:34:02 | OÑATI |
| 131. | BARTOLOME | GARCIA CARRILLO | 05:34:15 | ESKORIATZA |
| 154. | JOSU | JUAN LLODIO | 05:42:54 | ARRASATE |
| 157. | IGOR | GUENETXEA MONDRAGON | 05:45:34 | ARETXABALETA |
| 158. | ROSA | LASAGABASTER ARMENDARIZ | 05:45:50 | ESKORIATZA |
| 167. | AITOR | BIAIN GALDOS | 05:50:47 | OÑATI |
| 168. | IÑAKI | EGILUZ ZUBIA | 05:51:33 | ARRASATE |
| 169. | AITOR | OTXOA BIAIN | 05:51:50 | OÑATI |
| 180. | LUIS MARIA | URIBESALGO LETURIAGA | 05:57:46 | ARRASATE |
| 191. | JON | AIZPEURRUTIA ALZELAI | 06:00:02 | OÑATI |
| 193. | XABIER | LIJO PEREZ | 06:00:45 | BERGARA |
| 204. | JOSU | CASCON RODRIGUEZ | 06:09:54 | ARRASATE |
| 191. | JON | AIZPEURRUTIA ALZELAI | 06:00:02 | OÑATI |
| 207. | JOSE INAZIO | BALENTZIAGA LARRAÑAGA | 06:10:07 | BERGARA |
| 230. | CESAR | BASTARDO RODRIGUEZ | 06:27:55 | ESKORIATZA |
| 249. | JOSE MARIA | URZELAI ALBIZU | 06:43:27 | BERGARA |
| 262. | ENRIKE | ISASI GOROSTIDI | 06:54:50 | ELGETA |
| 270. | BEÑAT | IBARGUREN ARRIZABALAGA | 06:56:10 | ARAMAIO |

## *Kirolabur*

### FRONTENISA/BERGARA

Joan den zapatuan, hilaren 5ean, jokatu ziren, Angiozarko Arbiaska pilotalekuan, Bergarako Frontenis Txapelketako finalak. Jose Izquierdok eta Candido Hurtadok osatutako biko teak 25-18 irabazi zien finaleko partidua Carmelo Barcalari eta David Bellancori. Eta lehenengo partiduan moduan, arrasatearrek eta bergararrek elkarren aurka jardun zuten bigarren partiduan ere, hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko. Eta Arrasateko bikotea izan zen nagusi. Kepa Garcíak eta Iñaki Sánchezek 25-20 irabazi zieten Xabier Albisuari eta Patxi Vallejori.

### PERTIKA/ARRASATE

Jonathan Pérez atleta arrasatearra bosgarren sailkatu da, pertika-jauzian, promes mailako Espainiako Txapelketan. Salamankan izan da lehian Pérez, eta 4,50 metroko marka egin du. Jonathanen marka 4,90 metro da pista estalian, eta 4,80 metrokoa aire librean. Altuera horretara heldu izan balitz podiumean egongo zen, baina bosgarren postuarekin konformatu behar izan du. Entrenamenduetan bost metroko jauziak egitera heldu izan da inoiz Jonathan Pérez, baina azkenaldian erabiltzen ari den pertikak gogorregiak dira marka hori eskuratzeko.

### ESKUBALOIA/OÑATI

Itxaso Egaña eskubaloi jokalari oñatiarrak Granadako Izllanoz taldean jokatuko du datorren denboraldian. Izan ere, bi urtez Donostiako Akaba Bera-Bera taldearekin jardun du, eta aurten jokatzeko aukera gutxi izan ditu; hori dela eta, taldez aldatzea erabaki du Itxaso Egañak. Izllanoz taldea iaz igo zen ohorezko mailara, eta bederatzigarren sailkatu da azken denboraldian. Akaba Bera-Bera baino apalagoa da Izllanoz, baina talde berriarekin jokatzeko aukera handiagoak izango dituela uste du Itxasok. Hain zuzen, urtebeteko kontratua sinatu du oñatiarrak taldearekin, eta, eskubaloian jokatzeaz gain, Heziketa Fisikoko Irakasle ikasketak amaitzeko aukera izango du han.

Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA

# Goienka 2a

Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11

Kultura eta aisialdia

Uztailaren 11tik 18ra


## GARI-JOTZEA

Gari-jotzea ezin daiteke eguna ipinita egin", esaten zion aitak Jose Mari Iturbe antzuolarrari. Baina oraingoan, Jose Marik eta beste hainbat antzuolarrek esan horren ez-entzunarena egingo dute, horretarako arrazoi onak dituzte-eta.

Izan ere, guztia gertu dago bihar, uztailak 12, Antzuolan egingo duten ospakizunerako. Gari-jotze eguna izango da biharkoa. Jose Mari Iturbek azaroan erein zuen garia, bere lur-sail baten, uztailean garia ebakitzeko eta jotzeko moduan egon zedin. Horixe egingo dute bihar Antzuolan jaialdia antolatu dutenek: garia antzina ebakitzen zen bezala ebaki, batu, gurdiz herrira eraman, eta han, garbitu eta, oro har, landu, orain dela 40 urtera arte egiten zen moduan.

Antolatzaileek, Anelkar taldekoek, ohitura zaharrak gogorarazteaz gain, Hirugarren Munduko hainbat herriri laguntzeko dirua batzeko asmoz prestatu dute jaialdia. /14

LEIRE KORTABARRIA

**Sasoi baten garia zelan batu, garbitu eta jotzen zen eta irina zelan egiten zen ikusi ahal izango dugu bihar, zapatua, Antzuolan.**

Jose Mari Iturbe, Antzuolako Idalatorre baserriko, bere gari-sorotik ebakitako azao batekin.

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: LEIRE KORTABARRIA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11

JAIAK/ GARI-JOTZE EGUNA BIHAR, ZAPATUA, ANTZUOLAN

# Urre gorriaren gaineko jai-eguna

ANTZINAKO OHITURA BAT BERPIZTU ETA, BIDE BATEZ, HERRI TXIROEI LAGUNTZEKO, JAIALDIA ANTOLATU DUTE HAINBAT ANTZUOLARREK

LEIRE KORTABARRIA

**Orain dela hogei urte egin zuten azkenengoz gari-jotzea Antzuolan, Sarasketa baserriko Juan Praixko Jauregi eta ingurukoek. Baina gari-jotzea, ohitura bezala, 60ko hamarkadan hil zen Antzuolan. "Gure ondarearen zati bat ezagutzera eman nahi dugu", diote antolatzaileek.**

Bi helbururekin antolatu du antzuolar talde honek biharko ospakizuna. Halaxe diosku Jabier Etxaniz antolatzaileetako batek: "Garia elikagai eta ogibide garrantzitsua izan da Euskal Herrian. Antzuolan, 1960-65ean desagertu ziren gari-sailak; harrezkero, denbora bateko auzolanak eta festak desagertzear daude, eta gazte askok, tamalez, ez dakite garia zertarako den ere". Idalatorre baserrian erein zuen garia, azaro partean, Jose Mari Iturbek, eta beste antzuolar askoren inplikazioa lortu dute antolatzaileek biharko gari-jotze egun posible izan dadin.

Eta bigarren helburua da herrialde txiroei laguntzeko dirua biltzea. Anelkar elkartasun talde antzuolarrak Brasilera, Senegalera eta Congora bidaliko du bihar jasotako dirua. Horretarako, talo salmenta egingo dute. Hori ere, jai-egunaren barne: "Gari-jotzearen ondoren, gari-sailaren ugazabak afari-merienda bat eskaintzen zien lanera bildutako auzotarrei, eta herriko artoarekin egindako taloak jaten zituzten. Galapaixa deitzen zitzaion afari hari", azaltzen digute Anelkarkoek. Talo horiek salduta bilduko dute dirua.

LEIRE KORTABARRIA

Durangon, 1950ean egindako makina honekin ebakitzen zuten lehen garia Antzuolako baserri baten.

### ESKUZ ZEIN MAKINAZ

Ekintzak arratsaldeko bostetan hasiko dira. Ordu horretan, hainbat boluntario garia ebakitzen hasiko dira, Idalatorre baserriko sailean. Ondoren, azaoak (gari sortak) eta metak egingo dituzte. "Parte bat igitaiarekin ebakiko dugu, eta bestea, idiz tiratutako makinarekin", azaltzen du Jabier Etxanizek.

Gurdi zorrotza eta lera erabilita —lehengo usadiora—, garia jotzeko egokitutako lekura eramango dute zereala, herri eskolako patiora, hain zuzen ere, eta, 18:30etik 20:00etara, gari-jotzea zelan egiten zen erakutsiko diote jendeari. Hori bi modutan egingo dute, orain dela urteak egiten zen bezala: alde batetik, txanketean, edo eskuz azaoa (lotutako gari sorta) harri baten kontra joaz; eta, bestetik, matxakarekin, hau da, makinaren bidez. Bien erakustaldi laburra egiten digute Idalatorre baserrikoek: Jose Mari Iturbek matxakaren bidez egiten du, eta Justina Lezetak txanketea zelan egiten zen erakusten digu: "Urte askoan egin izan zen txanketea, makinak erabiltzen hasi arte", azaltzen digu Justinak.

Garia garbitzeko, dornua edo abentadora izeneko makina erabiliko dute, "haizeak eta eguraldiak laguntzen badu, beste teknikaren bat ere probatzen saia gaitezkeen arren", diote.

### GALAPAIXA ETA ERROMERIA

Jaiaren azken zatia 20:00ak inguruan hasiko da, behin garia guztiz garbituta dagoenean. Orduan, galapaixa eta erromeria egingo dute, auzolana ondo bukatu dela ospatzeko. Hori ere antzinako euskal baserri bizimoduaren jai esanguratsua da: "Orain dela hainbat urte, auzolanak egitea modu ona zen, hainbat baserrikoek elkarrekin lan egin eta, bide batez, jendea elkartu eta ospakizun polit bat egiteko. Orain, pena da jarrera horiek galdu izana", diosku Jose Mari Iturbek.

Biharko jaiak nagusiek aspaldiko kontuak gogora ditzaten balio izango du, baina baita inoiz ezagutu ez dituztenek ikuspegi oso bat izateko. Hori dela-eta, garia lantzearen prozesu oso-osoa ikusi eta ikasi ahal dezagun, bi errota egongo dira martxan egun osoan, jendeak bisitatzeko: Antiguako eta Errotaberriko errotak, alegia. Irina zelan ateratzen zen ikusi ahal izango da bertan.

## 1900eko makinaz

**Antzinako gari-jotze errituala behar bezala berreskuratzeko, orduan erabiltzen ziren makinak erabiliko dituzte bihar Anelkarkoek. Tresna oso zaharrak ziren kasu askotan; hori dela-eta, bai makinak lortzeko, bai eta erabiltzen ikasteko, antzuolar askoren inplikazioa lortu dute. Anelkarkoek diote "antzuolako baserritar askoren laguntza barik, ezin izango genuke gari-jotze eguna antolatu".**

**Sarasketa baserriko Juan Praixko Jauregik utzi dizkie tresna gehienak: garia ebakitzeko igitaiak, adibidez, baina baita makina konplexuagoak ere. Jose Mari Iturbe eta Jabier Etxaniz antolatzaileetako bik erakusten dizkigute hainbat antzinako tresna: zaharrena da 1900 urteko makina bat, garia jotzeko (*matxakia egin* deitzen dena), eta 1927ko beste bat, gasolinazko motorduna Frantzian egindakoa. "Bat ustelduta zegoen eta guztiz konpondu behar izan dugu", diote. Makinok ezinbestekoak dira matxakea egiteko.**

**Horrez gain, dornua ere badute, Iriarte baserriak utzitako garia garbitzeko tresna. 30eko hamarkada ingurukoa da hori. "Honekin zortea izan dugu, eta zegoenetan erabili ahal izango dugu", diote.**

**Aspaldiko lanabesen bilduma osatzen du garia soroan ebakitzeko makinak. Jose Marik eta Jabierrek erakusten digute zelan erabiltzen zen, bai tiraka, bai eta bertara igo eta pedalez bultzatuta. Makina hau Durangon, 1950. urtean egindakoa da.**

**Gari-jotzeak makinak eta usadio artisauak uztartzera behartzen zuen. Makina zaharrenak, behintzat, eskuz eragin beharrekoak dira, eta ez da ahaztu behar gari-jotzearen prozesu guztia eskuz egiten zela lehen: Idalatorre baserriko Justinak erakusten digu sasoi batean zelan egiten zen txanketea, eta eskuzko garbiketa hori egiteko erabiltzen zen harria oraindik ere leku berean gordetzen dute, iturriaren ondoan.**

**JABIER ETXANIZ** / ANTOLATZAILEA

## *"Batez ere, nagusiek gozatuko dute"*

**Anelkar elkarteko kide eta gari-jotze eguneko antolatzaileetako bat da Jabier Etxaniz antzuolarra.**

**Aparteko ekintza izango da zapatukoa, ezta?**

Antzuolan, baziren 40 urte ez zela gari-jotzea egiten —1983an, behin, izan ezik— eta apropos prestatu dugu gari-soroa. Gipuzkoa eta Bizkaian dagoen gari-soro bakarra izango da geurea. Oso txikia da, baina, gure asmoetarako, nahikoa.

**Herritar askoren laguntza behar izan duzue?**

Bai horixe. Baserritar askok lagundu digute, bereziki adin batekoek, horiek gogoratzen dituzte-eta aspaldiko kontuok. Egun hau eurendako oso berezia izango da, eta biziki gozatuko dutela espero dugu.

**Gauzak asko aldatu dira horrelako jaiak egiten zirenetik...**

Galdu egin dira ohitura hauek, bai Hauek auzolanak ziren, hau da, bospasei baserrik elkarrekin egiten zituzten lanak: materiala ere guztien artean erosten zuten. Giro hori berreskuratu nahi dugu egun batez, eta, gainera, jendeak irina egitearen prozesu osoa zelakoa zen ikustea.



Jabier Etxaniz.

HEDABIDEAK/ ‘PUTZ’ ALDIZKARIAREN AZKEN ZENBAKIA KALEAN DA

# Diseinu aldaketa ‘Putz’ aldizkarian

UDAKO ZENBAKI BEREZIA IZANIK, 100 ORRIALDE DITU BIHILABETEKARIAK, ETA URRIAN ARGITARATUKO DA HURRENGOA

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Putz aldizkariaren azken bi aleak kaleratu dituzte. Lotsa izpirik gabe, era guztietako gaiek tokia dute udako ale berezi honetan. Edukien aldetik askorik aldatu ez den arren, aldizkariak berrikuntzak dakartza diseinuari dagokionez. Irakurtzeko errazagoa izatea bilatu dute horrekin.**

Aste honetan argitaratu dituzte *Putz* bihilabetekariaren 21 eta 22. zenbakiak. Hala ere, uda denez gero, urrira arte ez dute besterik argitaratuko. Beraien estilo propioa izaten jarraitzen dute, baina hainbat aldaketekin dator oraingoan bihilabetekaria.

Argitalpenak izan dituen aldaketen artean, nabarmenenak diseinuari loturik agertzen dira. Jon Etxeberria aldizkariko maketazioaren arduradunaren hitzetan, “irakurtzeko errazagoa izateko egin dira aldaketa gehienak”. Estetika aldetik ere hobeto dagoelako aldatu dutela dio Jonek, baina arrazoi nagusia bestea dela esan du.

Egin duten aldaketa nagusia mantxetarena izan da, hau da, *Putz* hizki motarena. Aurrekoarekin guztiz hautsi eta irudi berri bat ematen saiatu dira. “Horretarako inguruko jendeak asko lagundu digu”, dio Etxeberriak.

Barrutik ere *Putz*-ek aldaketaren bat edo beste jasan du . Bai tipografikoki, bai tarteak handituz eta baita aipuak argiago azalduz ere. Horren arrazoia aurrekoa da, irakur errazagoa bilakatzea, alegia.

Modan dagoen diseinuetatik alde egin nahi izan dute aldizkarikoek. Ez dute hipermodernoa den zerbait egin nahi izan. Gaur egun abangoardiarako joera handia dago, eta hortik ihes egin nahi izan dute. Formatuari dagokionez, aurretik zuena baino zertxobait txikiagoa da.

Nahiz eta gehien bat itxuraz aldatu den, salneurriari dagokionez ere aldatu da aldizkaria. Lehen 3 euro balio zuenak, 4 euro balio ditu orain. Baina aipatzekoa da orrialde kopurua ere handitu dutela, eta horrela, 100 orrialdeko argitalpena egin dute, udako aldizkari berezia.

### TIJUANA IN BLUE ETA BESTE BATZUK

Itxuraz aldatu bai, baina irakurleak ohiko atalak aurkituko ditu 21 eta 22. ale hauetan. Elkarrizketei dagokionez, lau elkarrizketa egin dituzte *Putz*-eko kazetariek: Sonia González idazleari eginikoa; Jabi Destruyeri eginikoa; Piñata marrazkigilea eta Tijuana in Blue musika talde nafarra izan dute elkarrizketa lagun ale berezi honetan.

Literatur lanek ere beraien tokia izaten dute ale guztietan, eta oraingoan ere ez dira faltako. Batetik, Pablo Sastreren *Banketea*; bestetik, Kartxik *Gerra jolasak* izenburudun narrazioa aurkituko dugu *Putz* berrian. Paddy Rekalderen poemak irakurtzeko aukera dago ale bikoitz honetan; eta *Alimaleko estalketa hondartza nudistan* ipuina Ruben R. Sanchezen eskutik.

Chris Korda eta Eutanasiaren Eliza mintzagai dute *Putz*-ekoek ale honetan. Eliza horrek Agindu bakarra aldarrikatzen du: ez duzu mundura umerik ekarriko. Interneten bidez Church of Euthanasiako elizgizonei internautek eginiko zenbait galdera eta erantzunen berri ematen digute ale honetan. Eliza desberdin honetaz gehiago jakin nahi izanez gero, bihilabetekarian nahiko informazio izango du zenbaitzuek sekta gisa definituko luketen Elizari buruz.

Uda garaia, *Putz*-ekoak kalera irten dira. Bertan eginiko inkestan ezin falta liteke udarako asmoei buruzko galdera. Esaterako, Karlos Argiñanok edo Karlos Gurpegik egingo dutenaren berri jakin nahiez gero, *Putz*-en izango duzue erantzuna.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18
Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

Policlinica Gipuzkoa

Talde osoa emakumearen eskura

| | |
|---|---|
| Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia | Antonio Estomba |
| Menopausia | Fernando Cristóbal |
| Endoskopia ginekologikoa | Alfredo Otalora |
| Laguntza bidezko ugalketa | Jose M. Gómez<br>Ainhoa Larrea |
| Titietako gaixotasunak | Domingo Murgiondo |
| Obstetrizia | Miguel Gabarain |
| Psikosexualitatea | Maria José Ruiz |
| Nerabezaroko ginekologia | Fatima Azkue |
| Hezur dentsitometria | J. Rodríguez |

# Uztailak 11-18

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Las chicas serias no gustan*** antzezlana eskainiko du Las Torpedolevel taldeak bihar, zapatua, kultura etxean, 22:00etan. Sarrerak hiru eurotan daude salgai tabernetan.

► ***Al fondo a la derecha*** antzerki emanaldia egingo dute Pikor Teatro eta Zanguango taldeek gaur, egubakoitza, herriko plazan, 19:30ean.

### ELORRIO

► ***1937, gogoaren bidezidorretatik*** antzerki eta dantza emanaldia egingo dute Kukai eta Tanttaka taldeek gaur, egubakoitza, elizpean, 22:30ean.

### OÑATI

► ***Ondo esan beharko*** antzezlana taularatuko dute Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak gaur, egubakoitza, Santa Ana aretoan, 22:30ean.

## JAIAK

### ANTZUOLA

► **Herriko jaiak** ospatuko dituzte datozen egunotan. Honako ekintzak egongo dira, besteak beste: etzi, domeka, txirrindularitza lasterketa egongo da, 09:30ean; segidan, meza eta kontzertua, eta erretiratuen bazkaria, pilotalekuan, 14:30ean. Ekitaldiek eguenean, hilaren 17an, jarraituko dute. Egun horretan, umeendako jolasak egongo dira, herriko plazan, 10:30ean; 18:00etan, jaien hasiera markatzen duen txupinazoa botako dute; 19:30ean, Antzuolako Abesbatzak Salbea kantatuko du, eta dantza saioak egongo dira segidan. 20:30ean, trikibertso-poteoa egongo da; 22:00etan, Bidusound-ek girotutako DJ saioa; eta 00:00etan, suzko zezena. Datorren egubakoitzean, hilak 18, goizeresia egingo dute txistulariek, 10:00etan; 11:00etan, umeendako jolas parkea zabalduko dute; 11:30ean, meza nagusia egongo da; 12:30ean, bertso saioa, Zurrategin; arratsaldean, umeendako jolasak eta beste ekitaldi batzuk; 20:00etan, euskal musika emanaldia, eta 23:00etan, kontzertua.

### ARAMAIO

► **San Kristobal eguna** ospatuko dute etzi, domeka, Uribarriko San Kristobalen. 12:00etatik 19:00etara arte, dantzaldiak, jaia eta giro paregabea egongo dira.

### BERGARA

► **Santa Marina eguna** ospatuko dute datorren egubakoitzean, uztailak 18. Meza nagusia egongo da Santa Marina parrokian, 19:00etan; gero, Aritzeta abesbatzaren emanaldia egongo da.

► **San Kristobalgo jaiak** ospatuko dituzte Aldaiegia auzoan bihar eta etzi.

### ELORRIO

► **Nekazaritza Ekologikoaren Durangaldeko VII. azoka** egingo dute bihar, zapatua, Gernikako Arbolaren plazan, goiz osoan, Elorrixa talde ekologistak eta Lurreko nekazari ekologikoen elkarteak antolatuta.

### OÑATI

► **Triana auzoko jaiak** ospatuko dituzte gaurtik etzira bitartean. Honako ekintzak egongo dira: gaur, egubakoitza, 19:00etan, hasiera txupinazoa botako dute, eta Astotrasto Txuriurdina jaitsiko dute auzoko plazan. 19:30ean, kalejira egongo da; eta 23:00etan, dantzaldia Luhartz taldearekin. Bihar, zapatua, umeek marrazkiak egiteko aukera izango dute, 11:30ean; 13:00etan, sariak banatuko dituzte; 13:30ean, soinupoteoa egongo da; eta 16:00etan, musa eta arku tiraketa. 16:30ean, mendi-bizikleta zeharkaldia egingo dute; arratsaldean, txorimaloak, dantzaldia, okela dastaketa… egongo dira, eta 23:30ean, erromeria. Azkenik, etzi, domeka, meza (San Martingo ermitan) eta abesbatzaren emanaldia egongo dira eguerdira arte; arratsaldean, auzo bazkaria, pailazoen emanaldia eta, 20:30ean, dantzaldia.

## MUSIKA

### ANTZUOLA

► **Zuhaitzaren soinu kolektiboa** euskal musikaren inguruko saioa egongo da datorren egubakoitzean, hilak 18, Zurrategin, 20:00etan. Txalaparta, trikitixa, baxua, perkusioa eta txirula joko dituzte.

► **Txapelpunk** taldearen kontzertua egongo da datorren egubakoitzean, hilak 18, herriko plazan, 23:00etan.

### ARRASATE

► **Dixie marching Mac Jeara's band** taldearen emanaldia egongo da herriko kaleetan barrena, datorren egubakoitzean, hilak 18, 19:30ean.

► **Lore Gazteak** euskal dantza taldearen emanaldia egongo da eguaztenean, hilak 16, Monterron parkean, 22:00etan. Eguraldi txarra badago, Amaia antzokian egingo dute emanaldia.

### BERGARA

► **Miren Aranburu Ensemble** euskal jazz taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:30ean.

► **Los reyes del K.O.** jazz taldearen kontzertua egongo da datorren egubakoitzean, uztailak 18, Espoloian, 22:30ean.

### ELORRIO

► **José Luis Montón** flamenko estiloko gitarra jotzaile bartzelonarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Lourdesko koban, 22:30ean. Eguraldi txarra badago, elizpean izango da.

► **Pirineos Jazz Orchestra** taldearen emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, hilak 18, elizpean, 22:30ean. Eguraldi txarra eginez gero, Arriolan izango da.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Gari-jotze saioa eta erakustaldia** egongo dira bihar, zapatua, Anelkar elkartearen eskutik. 16:00etatik 19:00etara bitartean, Antiguako eta Errotaberriko errotak martxan jarriko dituzte publikoarendako; 17:00etan, gari moztea egingo dute igitaiarekin eta makinarekin; 18:30ean, gari jotzea egingo dute; eta, aldi berean, talo dastaketa eta erromeria egongo dira.



► ANTZERKIA

## INDUSTRIAREN UMOREZKO KRITIKA EGINGO DU PIKOR TALDEAK

Industriaren, ekoizpenaren eta lanaren inguruko antzezlan satirikoa egingo dute Pikor eta Zanguango antzerki taldeek gaur, egubakoitza, Arrasateko herriko plazan, 19:30ean: *Al fondo a la derecha* du izenburua antzezlanak, eta taularatu duten leku guztietan izugarrizko arrakasta izan du. Lantegi batean dago girotuta istorioa: han, ugazabarekin eta lau langile xelebrerekin egingo dugu topo. Umore handiko ikuskizuna da, surrealismoaren bidez hainbat errealitateren kritika zorrotza egiten duena. Pikor eta Zanguango taldeek indarrak batu dituzte, orain 20 urte estreinatutako ikuskizun bat moldatzeko; lan horren emaitza da gaur ikusi ahal izango dugun antzezlana, *Al fondo a la derecha*.

**Non:** Arrasateko Herriko Plazan. **Noiz:** gaur, uztailak 11, egubakoitza. **Ordua:** 19:30.

## MIREN ARANBURU ENSEMBLE TALDEA BERGARAN

Miren Aranburuk eta Jean Louis Hargous-ek osatutako jazz taldearen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, Bergarako Espoloian, 22:30ean. *Gorri isila* izeneko diskoa kaleratu zuten iaz, Errabal euskal jazz zigilu berriaren eskutik. Mirenek gai propioak eta euskal kanten moldaketak abestuko ditu.

### ARAMAIO

► **Arrantza lehiaketa** antolatu dute ume eta gazteendako, bihar, zapatua, Ibarran, 09:00etan.

### ARETXABALETA

► **Euskal presoak Euskal Herrira astea** antolatu du herriko EPEH plataformak. Honako ekintzak antolatu dituzte: hilaren 15ean, martitzena, zinema emanaldia, 21:30ean; 16an, eguaztena, enkartelada mugikorra, 19:00etan, eta kafe-tertulia, udaletxe zaharrean, 19:30ean; hilaren 17an, eguena, bertso-antologia, Xabier Amurizaren eskutik, Arlutz atzeko plazan, 19:30ean; egubakoitzean, hilak 18, Julen Cobosen emanaldia, Ezkutun, 22:30ean. Ekintza gehiago egongo dira datorren asteburuan.

### ARRASATE

► **Itoitzera bisita** egingo dute Arrasateko solidarioek bihar, zapatua. Arbolapetan elkartuko dira autoz joateko, 09:00etan; bat egin gura duenak han agertu besterik ez dauka.

► **Arizmendi Ikastolako Umezaintza guneak** ikasturte amaiera jaialdia egingo du gaur, egubakoitza, Umezaintzako egoitzan, 18:00etan. Txikienek antzezlana, dantzaldiak eta kantu emanaldiak egingo dituzte, eta nagusienek, bertso emanaldia.

### OÑATI

► **Herri arteko lehiaketa** jokatuko da bihar, zapatua, Oñatiko Foruen plazan, Debagunek antolatuta. Eskualdeko herri nagusietako ordezkariek hartuko dute parte, eta hiru motatako probak egingo dituzte. 11:00etan hasiko da lehiaketa.

► **Cebollera mendizerrara irteera** antolatu ddu Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak uztailaren 19 eta 20rako. Izena emateko epea hilaren 16an bukatuko da. Deitu 943 78 08 10 telefonora.

► **Hainbat natura ibilbide gidatu** antolatu ditu udarako Natura Eskolak. Aurretik dei egin behar da Turismo Bulegora (943 78 34 53). Datozen egunotan, ibilbide hauek egongo dira aukeran: bihar, zapatua, *Basoa eta ikazkintza*; hau turismo bulegotik abiatuko da, 09:00etan; eta etzi, domeka, *Arantzazu erreka eta kobazuloak*; turismo bulegoan elkartuko dira, 10:00etan.

► **Oñati eta bere ondare artistikoa** ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu Turismo Bulegoak, uztailetik irailera bitartean. Aldi berean, Arantzazuko santutegia ezagutzeko bisitak ere egongo dira. Deitu 943 78 34 53ra.

## ERAKUSKETAK

### BERGARA

► **Beart-eko ikasleen** margolanen erakusketa egongo da etzira arte, domeka, kultura etxean.

# Zinema

### ARRASATE

■ **MONTERRON PARKEA**

***Millennium Mambo***
Eguena: 22:30.
Doaneko emanaldia.

***Como Dios***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***Slam***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Los ángeles de Charlie: al límite***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Cinco hombres para Lucy***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Flores de sangre***
Egunero: 20:00, 22:30.

***En un lugar de África***
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30.

***La gran película de Piglet***
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

***La luna en directo***
Martitzena, hilak 15: 20:00.

***El destino***
Eguena, hilak 17: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEMA**

***En un lugar de África***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Los ángeles de Charlie: al límite***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***En un lugar de África***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Hulk***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***Alhambrako giltza***
Egunero: 17:30.

***En un lugar de África***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***A todo gas 2***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 23:00.

***Cómo perder a un chico en diez días***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***La balsa de piedra***
Egubakoitzetik domekara: 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Presos del olvido***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***Besen a quien quieran***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Shin Chan***
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

***Aunque estés lejos***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.

***Escena de un crimen***
Egubakoitzetik domekara: 20:00.

***Posesión***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***Carolina***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Desnudos***
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.

***May***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Superagente Cody Banks***
Egunero: 17:15, 20:00.

***Se montó la gorda***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Hulk***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Matrix reloaded***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Como Dios***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

■ **ABACO-LAKUA**

***A todo gas 2***
Egubakoitza: 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

***Como Dios***
Egubakoitza: 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Zapatua eta domeka: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

***Nacer para morir***
Egubakoitza: 18:35, 20:45, 23:00, 01:10.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:35, 20:45, 23:00, 01:10.

***Matrix reloaded***
Egubakoitza: 19:30, 22:15, 01:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30, 22:15, 01:00.

***Hulk***
Egubakoitza: 19:30, 22:15, 01:00.
Zapatua eta domeka: 16:15, 19:30, 22:15, 01:00.

***Los ángeles de Charlie: al límite***
Egubakoitza: 18:30, 20:40, 22:55, 01:05.
Zapatua eta domeka: 16:20, 18:30, 20:40, 22:55, 01:05.

***Se montó la gorda***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 00:50.
Zapatua eta domeka: 16:20, 18:25, 20:35, 22:45, 00:50.

***Superagente Cody Banks***
Egubakoitza: 18:20, 20:30.
Zapatua eta domeka: 16:10, 18:20, 20:30.

***Cómo perder a un chico en diez días***
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:20, 22:40, 01:10.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Matrix reloaded***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

***Relaciones confidenciales***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 00:30.
Domeka: 22:30.

***A todo gas 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.

***El monje***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 20:05, 22:05.

***Como Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Shin Chan***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30.

***Hulk***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

***Slam***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:05, 20:15, 22:30.

***La gran película de Piglet***
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:40.
Domeka: 12:15, 16:40, 18:40.

***Los ángeles de Charlie: al límite***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

***Carolina***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20.
Domeka: 12:15, 16:20.

***La cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 18:35, 20:35, 22:35.

***Se montó la gorda***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35.

***Atraco a las tres y media***
Egubakoitza: 15:45, 18:00, 20:20, 00:45.
Zapatua: 15:45, 18:00, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 22:40.

***Nacer para morir***
Egubakoitza eta zapatua: 20:40, 22:40, 00:40.
Domeka: 20:40, 22:40.

***Últimas vacaciones***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***En un lugar de África:*** ●●● / ***Posesión:*** ●● / ***Relaciones confidenciales:*** ● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## HULK

PUNTUAZIOA: ●●

**ZUZENDARIA:** Ang Lee.
**AKTOREAK:** Eric Bana, Jennifer Connelly.

*Tigre y dragón* filmarekin, Ang Lee zuzendari bikainak efektu bereziak eta pertsonaien tratamendua batera joatea posiblea dela erakutsi zuen. Zuzendariak benetako abenturazko zinema egitea lortu zuen. Gertakizun guztiek istorioan eta pertsonaietan eragina zuten. Pertsonaiak hezur-haragizkoak ziren: kezkekin eta euren jokatzeko moduak zehazten dituzten lokarri eta moraleko, emoziozko eta sentimenduzko dilemekin. Film ederra zen, eta oso arrakasta handia lortu zuen. Akaso horregatik, *Hulk*-en ekoizleek, gizon berdearen istorioari zirrara eta edukia emateko, Lee gizon egokiena zela erabaki zuten. Eta ideia hori, batez ere, filmaren lehenengo erdian edo bi herenetan nahiko ondo betetzen da. Baina ez dugu ahaztu behar ekoizpen handi baten aurrean gaudela, eta efektu bereziek agerpen handia izan behar dutela. Horiek gehiegi nabarmentzen dira, eta, horren ondorioz, filmaren balio orokorra murriztu egiten da.

Betidanik Leek, pertsonaien barneko gatazketara hurbiltzerakoan, oso esku ona duela erakutsi du. Horrela, *Hulk*-en dagoen amodio istorioa irudietan oso ondo islatzen da. Iraganeko gertakizun

batek —amesgaizto baten erara— bikotearen harremanak markatzen ditu. Pertsonaiek eta ikusleek ez dakite zer gertatu zen, baina gertatukoaren ondorioak pertsonaiek eta ikusleek nabaritzen dituzte. Bikotearen trazuak eta daramatzaten harreman korapilotsuak ondo zehaztuak daude (Jennifer Connellyren interpretazioa oso ona da). Munstroaren lehen agerpena eta txakurrekin duen borroka beldurgarria, besteak beste, era bikainean filmatuta daude. Neska gazteak Banner normalarekin eta Banner-*Hulk*ekin dituen harremanak ondo lortuak daude, baina, beste alde batetik, efektu bereziek protagonismo handiegia hartzen dute (une batzuetan filmak bideojoko bat dirudi), ekintzako eszenak gehiegi luzatzen dira, eta aitaren eta semearen arteko bukaera behartu eta zalapartatsua aspergarria egiten da. Eta, azkenean, zinematik irteterakoan daukagun sentsazioa da benetan den baino filma txarrago baten aurrean gaudela. Eta pena da, *Hulk*-ek, film irregularra izan arren, baditu-eta ondo lortutako zatiak.

ANTONIO ZABALA

INMO f3 SARE inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

SALGAI

ARRASATE
- Erdialdean dago eta 66 m² ditu. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berrituta. Ondo dago.
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.
- 65 m². Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea. Berrituta. Sotoa dauka.

BERGARA
- 60 m². Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berriztuta. 117.197,36 euro / 19.500.000 pta.
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

ANTZUOLA
- 75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.

KOLDROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak
- 276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.
- Bustinzurin etxebizitza salgai. 88 m².

BERGARA / Etxebizitzak salgai
- Artzamendi. 80 m². Ganbara, 24 m². Berrizteko.
- Osintxun. 99 m². Ganbara, 24 m². Berrizteko.
- Osintxun. 90 m². Eguzkitsua.
- Osintxun. Behea. 45 m². Berrizteko.
- Osintxun. 73 m². Ganbararekin.

BASERRIAK
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegin, Osintxun bi baserri, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloan, Elosun, Zegaman, Asteasun, Bedoñan.

Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.

ARETXABALETA
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.
943 77 03 08

BERGARA
BARRUTI INDUSTRIALDEAN 176 M²KO LOKALA EMATEN DA ERRENTAN.
943 76 35 09
MELTXOR

ANGIOZAR
JARDUNEAN DAGOEN ERRETEGIA EMATEN DA ERRENTAN.
629 46 42 46
651 70 06 23

BERGARA
NEGOZIO ERRENTAGARRIA SALGAI
943 76 48 48
943 76 25 87

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE
NECTAR NATUR KOSMETIKA DENDAN ESTETIZISTA BAT BEHAR DA.
943 79 99 38

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai San Migel auzoan. 943 77 07 15.

**Bergara.** Apartamentua salgai erdialdean. 50 m². Berrituta. Deitu arratsaldez. 654 30 89 49.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Artzamendi kalean. 943 76 33 37 edo 656 78 99 04.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Maria Jesus. 943 76 71 12.

**Casa la Reina** (Errioxa). Etxebizitza salgai, lurrekin. Berri-berria. Prezio interesgarria. Deitu lasai. 943 78 14 72.

**Larrabea** (Legutiano). Apartamentua salgai. 669 47 42 65.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Olakua 17.eko lehenengo solairuan. 943 78 24 39 edo 635 20 02 86.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria.** Etxebizitza ematen da errentan, hondartza aurrean, uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostaldietan. 649 03 47 20.

**Arrasate.** Etxebizitza emango nieke errentan ikasle batzuei. Bakarkako logelak. 13:00etatik 14:00etara edo 21:00etatik aurrera deitu. 658 70 91 54.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Bigarren solairua. Sukaldegongela, bainugela eta hiru logela. 679 25 72 46.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Musakola auzoan. Hiru logela. Guztiz jantzita. 635 70 04 88.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen dut errentan. 666 21 73 05.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan Levanteko hondartzan, irailean. Igerilekua eta aparkalekua. 945 21 34 70.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartza ondoan, itsasoari begira. Hornituta. Igerilekua, telebista, aparkalekua. 630 41 84 65.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan, abuztuko bigarren hamabostaldian. Hondartzatik gertu dago eta parkinga eta igerilekua dauzka. 666 67 06 94.

**Calpe (Alacant).** Etxebizitza ematen da errentan. hondartzatik 100 metrora. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta terraza. 655 74 57 97.

**Donostia.** Apartamentua ematen da errentan Antigua auzoan, abuztuko bigarren hamabostaldian. 630 08 24 17.

**Donostia.** Etxebizitza emango nieke errentan ikasle batzuei Amara zaharrean, urritik aurrera. Hiru ohe. 635 71 49 16.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan abuztuko bigarren hamabostaldirako. Zurriolatik oso-oso gertu. 943 77 21 28.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan, abuztuan, Amara aldean. 943 71 50 87.

**Hendaia.** Apartamentua ematen da errentan, hondartzatik gertu, prezio onean. Uztailetik urrira bitarteran. 00 33 559 481 515. 943 64 14 50.

**Peñiscola** (Castello). Etxebizitza ematen da errentan, uztailaren bigarren hamabostaldian eta iralean. Hondartzatik oso gertu. Igerilekua, teniserako pista. Sei lagunendako. 945 29 33 80.

**Santa Pola** (Alacant). Bungalowa ematen da errentan, abuztuan. 636 12 57 00.

**Somo** (Kantabria). Apartamentua ematen da errentan, uztaileko bigarren hamabostaldian eta irailean. Hondartzatik 50 metrora. Garajea du. 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

**Torrevieja (Alacant).** Etxebizitza ematen da errentan, uztailean eta abuztuan. Igerilekua du. Erdialdean, hondartzatik gertu. 943 78 04 70.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote batek etxebizitza txikia hartuko luke errentan. 943 79 69 10.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 696 55 52 09.

**Bergara.** Beste lagun batzuekin etxebizitza hartu nahi nuke errentan. Etxea osatzeko norbaiten bila bazabiltza edo etxea errentan emateko badaukazu, deitu. 615 72 54 53.

**Eskoriatza.** Lau ikasle etxebizitza bila gabiltza. 635 74 24 75.

**Eskoriatza/Elgeta.** Lanean dabilen bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. Nere. 653 73 07 39.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, irailetik aurrera, Eskola Profesionaletik gertu. 605 72 51 38.

**Arrasate.** Uribe auzoan pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Zigor. 677 63 74 61.

**Bergara.** Beste pertsona batekin bizi izateko gertu nago. 615 71 38 64.

**Bergara.** Logela bat hartuko nuke errentan. 610 83 36 23.

**Donostia.** Hiru lagun behar dira Donostiako Amara zentroan etxebizitza osatzeko.

Etxea ondo kokatuta dago. 658 71 56 24.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia dago salgai Araba ibilbideko 27an. 20 m2. 627 90 68 91 edo 943 79 69 83.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia ematen da errentan. Salbador. 661 80 00 32.

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Kontzezinon. 943 79 55 20.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Lokala salgai. 36 m2. Leku onean dago. Komertziorako prestatuta. Prezio negoziagarria. Deitu 15:00etatik 15:30era edo 22:00etatik 22:30era. 656 75 52 28.

**Oñati.** Lokala salgai. 260 m2. Gainean terraza du, eta etxea egiteko aukera ematen du. Iluntzean. 660 73 26 15.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Lokala ematen da errentan Amillagan, San Lorentzo poligonoan. 619 47 73 72.

Aizu, adi!
Egubakoitz arratsaldez libre bazaude eta
GOIENKARIA banatzeko prest,
deitu:
Tel: 943 71 23 91
Banaketa lanagatik ordainduko zaizu.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Norbait behar da ordu batzuetan umea zaintzeko. Deitu iluntzean. 943 79 37 42.

**Arrasate.** Emakumea behar da umea zaintzeko. 943 79 13 55.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko (atarteak, tabernak...). 605 77 42 23.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Bergara.** Emakume batek etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke irailetik aurrera. Esperientziaduna. Deitu 20:30etik aurrera. Angela. 943 76 48 81.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko. Amina. 676 77 24 67.

**Bergara.** Etxeko lanak egingo nituzke. 646 59 56 56.

**Bergara.** Fatxadak zaharberritzen lan egingo nuke; esperientzia daukat. 943 74 23 25.

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko. 666 68 56 89.

**Bergara.** Zerbitzari lan egingo nuke. 615 71 38 64.

**Debagoiena.** Neska arduratsuak umeak zainduko lituzke orduka edo arratsaldez. 943 71 53 74.

**Gidaria.** 38 urteko gizonezkoa autobus gidari edo banatzaile gisa lan egiteko gertu. Julen. 629 28 17 38.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBHko eskola partikularrak emateko irakaslea behar da. 943 79 61 02.

**Arrasate.** Hiru ikaslek kontabilitateko kostuen kalkuluko eskola partikularrak jaso gura genituzke. Xabi. Afal orduan deitu. 943 79 07 94.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Esperientziadun irakaslea gertu hizkuntza musikaleko eta pianoko eskolak emateko. 657 72 96 32.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)
Garbi S.L.

## 6/ MOTORRA

tax MZ-30. 28-80 mm. 943 76 50 11.

**Bizikleta** salgai, mendikoa.

AUTOETAN ESKAINTZA BEREZIAK
- Mondeo TDCi.....0 Km-ko autoa
- Focus TDi .....0 Km-ko autoa
- Focus 16.....0 Km-ko autoa
- Focus TDCi .....0 Km-ko autoa
- Mondeo TDdi.....0 Km-ko autoa
- Fusion TDCi .....0 Km-ko autoa
- Fiesta TDCi .....0 Km-ko autoa
- Focus TDi .....1999koa
- Focus TDi .....2001ekoa
- Focus TDi .....2000koa
- Berlingo Di.....1997koa

MUGARRI
943 79 75 64

### 601. SALDU

**Derbi** Senda motoa salgai. 75 cm3. Errepideko gurpilak eta txapelketako filtroa eta hodia. Prezio onean. 678 55 40 93.

**Ford** Escort 1.600 autoa salgai. Matrikula: SS-AM. 943 79 40 72 edo 653 72 31 27.

**Ford** Orion 1.600 Ghia salgai. Matrikula: SS-AB. 657 71 48 43.

**Kawasaki** GPZ motoa salgai. 900 euro. 943 76 72 75.

**Opel** Vectra 1.6 S autoa salgai. Matrikula: SS-AF. IAT (ITV) ekainean pasatu du. 1000 euro. 669 70 71 37.

**Opel** Calibra 8v autoa salgai. Ondo dago. 635 71 93 28.

**Opel** Corsa 1.3 GT autoa salgai. Matrikula: SS-AD. Prezio onean. 943 79 47 43.

**Renault** Clio 1.2 RN autoa salgai. Matrikula: SS-AT. 1994koa. 943 76 02 17.

**Suzuki** RMX motoa salgai, errepidekoa. Hiru urte ditu. 943 76 56 65.

**Yamaha** Aerox Checa motoa salgai. 5.000 Km. Mikel. 629 11 30 04.

**Yamaha** FZR 600 motoa salgai. 1993koa da eta 18.000 Km ditu. 1.322 euro. 606 01 63 78.

## 7/ ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Txabola** salgai, txakurra edukitzekoa. Lursail eta guzti. Bergarako erdialdean. 635 20 37 66 edo 943 19 28 52.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Alpen** Kreuser denda-karroa salgai. 902 euro. Ondo dago. Gauez deitu. 943 78 71 25.

**Argazki** kamera salgai. Pentax MZ-30. 28-80 mm. 943 76 50 11.

200 euro. 606 86 71 97.

**Bizikleta** salgai. Decathlon markakoa, mendirako edo errepiderako. Estreinatu barik. Kaskoa, maillota eta kulotea ere salgai. 500 euro. Nerea. 943 79 68 18.

**Denda-karroa** salgai. Pio edo Marije. 943 77 06 70.

**Kanpadenda** kanadarra salgai. Lau lagunendako. 25 euro. 606 86 71 97.

**Kotxe-jarlekua** salgai, umeendakoa. Bebe-Car markakoa. Traker modeloa. Oso ondo dago. 943 79 67 12.

**Mahaia** salgai, ordenagailuarendako. Gutxi erabilita. 1,40 x 0,60 mm. Prezio interesgarria. 943 77 15 79.

**Solariuma** salgai, etzanda egotekoa. 28 lanpara ditu. Prezio onean. 660 45 05 72.

**Telefonoa** salgai, poltsikokoa: Siemens C45. Hiru karkasa eta kargatzailea ditu. 943 76 71 31.

**Tringano** Ranger denda-erremolkea salgai. Berri-berria dago. 616 20 57 41 edo 943 76 80 61.

**Umetxoendako** materiala salgai. Bigarren eskukoa da, baina ondo dago: Maxi-Cossi Bebe-Confort (42 euro), Maxi-Cossi-arendako zakua (30 euro), Trona Bebe-Confort (39 euro). Eta opari: umetxoendako kotxeko poltsa (aldatzekoa eta guzti) eta eguzkitakoa. 661 22 51 49.

### 802. EROSI

**Sehaska** (bigarren eskukoa) eta etxeko parkea erosiko nituzke. 620 51 34 25.

### 805. TRUKATU

**Yamaha** TZR motoa trukatuko nuke. Motorra eta iheshodia aldatuta ditu. Rieju RR batengatik aldatuko nuke. 645 70 44 45.

### 807. AURKITU

**Arrasate.** Norbaiti eraztun bi ahaztu zitzaizkion Txatxilipurdi elkartean. Galdu badituzu, jo Txatxilipurdira.

## AIPAGARRI

### Edu Muruamendiaraz

BERGARA

Gaur, egubakoitza, estrenatuko du Edu Muruamendiarazen Aukeran taldeak bere azken ikuskizuna, *Todo lo que tiene nombre existe* izenekoa. Kursaalen egingo dute aurkezpena, Antzerkiaren Ferian. Dantza tradizionala eta gaur egungo dantza uztartzen dituzte ikuskizun horretan.

### Kattalin Antxia

ARETXABALETA

Kattalin Antxiaren marrazkia aukeratu du epaimahaiak Aretxabaletako Andramari jaietako egitarauaren azala egiteko. Bost lan aurkeztu dituzte aurten kartel lehiaketa horretara eta Kattalinenak irabazi du. Herriko eliza nagusia eta zezenak irudikatu ditu bere marrazkian.

### Aitor Pagaldai

ESKORIATZA



Orain dela pare bat aste aurkeztu zuen Aitor Pagaldaik *Eskoriatzako Udaletxeen Historia* liburua. Udalak izan dituen egoitzen historiaren gainean argitaratu du liburua Pagaldaik; hau da, udaletxea kokatu den eraikin guztien gaineko liburua da, Udalaren laguntzarekin argitaratua.

---

ESKELA

Jesus Mari
Nafarrate Iraeta

**Arrasate**n hil zen 2003ko uztailaren 6an

*Artixaua*
*burdina lantzen maixua*
*harria eta burdina*
*aspaldiko lagun onak*
*harrobiak utzi dizkiguzu*
*zure sormenaz beteta*
*hauei begiratuta ikusiko dugu*
*Epele errota zaharreko lagun maitea*

Kanpanzar eta Kobate harrobiko lagunak

---

URTEURRENA

Benita
Egia Legorburu

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 13an, 13:00etan, **Bergara**ko Sierbetan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

---

**Julen Benítez Algaba**
Arrasate • Uztailaren 4a • 3,460 Kg. Gurasoak: **Juan Benítez** (Arrasate) eta **Victoria Algaba** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.

**Oscar Alejandro Gutiérrez Hurtado**
Arrasate • Uztailaren 5a • 3,460 Kg. Gurasoak: **Jorge** (Kolonbia) eta **Isabel** (Kolonbia). Argazkian, umea gurasoekin.

**Nagore Garnateo Ignacio**
Eskoriatza • Uztailaren 7a • 3,270 Kg. Gurasoak: **Manuel Garnateo** (Eskoriatza) eta **Luz Maria Ignacio** (Eskoriatza). Argazkian , umea amarekin eta Adrian anaiarekin.

**Haritz Gómez de Balujera Oregi**
Bergara • Uztailaren 8a • 3,270 Kg. Gurasoak: **Isabel** (Bergara) eta **Mikel** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.



**Josune Kortazar** eskoriatzarra eta **Joseba** oñatiarra bihar, zapatua, ezkonduko dira Eskoriatzan, Apotzagako elizan, hain zuzen ere. Zorionak, bikote, eta urte askotarako Eskoriatzako lagunen partetik, eta ondo-ondo pasa ezazuela ezkon bidaian!

**Fernan Duran** bergararra eta **Aitziber Nafarrate** eskoriatzarra uztailaren 19an ezkonduko dira Apotzagako elizan. Ezkon bidaian, Costa Ricara joango dira. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familia osoaren eta lagunen partetik!

---

ESKER ONA

Isabel
Zabarte Beitia

**Arrasate**n hil zen 2003ko uztailaren 4an, 95 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei*
*eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,*
*eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Jose Luis
Sanz Candamio

**Bergara**n hil zen 2003ko uztailaren 6an, 69 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei*
*eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,*
*eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Bittori
Ribera Etxeberria

**Aretxabaleta**n hil zen 2003ko ekainaren 29an, 86 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei*
*eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,*
*eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Abencio
Castelo Jiménez

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 13an, 13:00etan, **Bergara**ko Sierbetan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Josefa
Molina Peñuela

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 13an, 13:00etan, **Bergara**ko Sierbetan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

II. URTEURRENA

Emilio Antonio
Ubeda Azkona

Bigarren urteurreneko meza domekan, uztailaren 13an, 12:30ean, **Eskoriatza**ko San Pedro parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

### ZAPATUA, 12

Laino gutxi egongo da zapatuan, baina baliteke euri txikia egitea. Tenperatura ez da aldatuko edo behera egingo du. Haizea, berriz, ekialdetik eta ipar ekialdetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Ostarteak nagusi.
**Errioxa:** Ostarteak.
**Pirinioak:** Ostarteak.

### DOMEKA, 13

Domekan ere ez du hobera egingo eguraldiak; lainoak izango ditugu eta ekaitza ere egingo du. Tenperaturak gora egingo du, eta haizea, berriz, aldakor ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Egun eguzkitsua.
**Errioxa:** Eguzkia nagusi.
**Pirinioak:** Eguzkitsua.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**19,4º C**

ILARGIAREN ALDIAK: UZTAILA

| ilgora | ilbete | ilbehera | ilberri |
|---|---|---|---|
| 7 | 13 | 21 | 29 |

EGUZKIA: UZTAILAREN 13a

Sortu 06:39 · Gorde 21:48

## URKULUKO URTEGIA

**Azkeneko bizpahiru astetan bezalaxe jarraitzen du Urkuluko urtegiko ur mailak, ez du aldaketarik izan; %84,04, hain zuzen ere, da urtegiaren ur maila.**

**% 84**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ((112)) SOS DEIAK

### OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

### DEBAGOIENA

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

| | |
|---|---|
| GOITB | 943 71 23 96 • goitb@ goiena.com |
| Goienkaria | 943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com |
| Arrasate Press | 943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com |
| Berrigara | 943 76 03 97 • berrigara@goiena.com |
| Aretxagazeta | 943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com |
| Goibekokale | 943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com |
| Kontuola | 943 76 03 97 • kontuola@goiena.com |
| Txirritola | 943 71 25 11 • txirritola@goiena.com |
| Ze barri? | 943 79 86 21 • zebarri@goiena.com |
| Kontzejupetik | 943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net |
| Putz | 943 79 42 30 • putz@euskalnet.net |
| Arrasate Irratia | 943 71 17 31 • irratia@goiena.com |
| Oñati Irratia | 943 78 26 17 • irratia@oinati.net |
| Sustatu.com | 943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia · Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Aretxabaletako Udala · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Elgetako Udala · Eskoriatzako Udala · Leintz Gatzagako Udala · Oñatiko Udala**

**Izan zaitez gure aurkezle!**

Goiena Telebistan ibarreko neska-mutiko protagonista izango garen saioa prestatzen ari gara, eta aurkezleak nahi ditugu gure saiorako. Interesa badaukazu, deitu telefono honetara:

**943 71 23 93**

Goitb Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*

## HITZGEZIDUNAK

**Luma**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euri zuri / Donostiako auzoa | | Beldurrak, ikarak / Triskantza | | Euskaraz eta kitto! | |
| | * Izena / Junta-gailua | | | | | |
| Arabako mendia / Atzo gauean | | Gaixoak / * Deitura | | | | |
| | | | K birritan / Egurrezko ziri | | | Pirinioetako estatua |
| Ipar., doaz / Ing., gaizto | | | | | Bokala / Bokala | |
| | | | Entzuteko moduan / Bokala | | | |
| Nafarroako basoa / Putre | | | | | 500 / Nasa | |
| | | | Bazter / Eskas | | | |
| Ebaki sakon | Garen hauek / Bihi | | Suitzako ibaia / Kasik | | | |
| | | | | Iridioa / Modu atzizkia | | |
| Pl., gurdi mota / Hezketa eman | | | | | Bokala / 1 | |
| | | | 2 | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**SOLDAU-KINTO ARTIAN**

Inguruetako soldau-kinto batzuk zozketa edo sorteoa eitxera juan ziren Donostiara. Zozketa ondoren, asi ziran alkarren arteko galdera edo preguntak.

- Nora tokau jak?
- Neri, Ferrolera.
- Neri, Gasteizera.
- Neri, fabrikako direktoriakin.

Bestiak arritxuta:

- Zer esan dok?
- Papelak diñuana. Ara or!
- I, txotxo, or ez jiñok gero "director de fabrica", or jiñok "directo a Africa".

**DIRU ESKIAN**

Eibarren bizi zan kanpotar bati etorri jakozen animendako diru billa. Arek, baiña, eta erderaz, erantzun:

- Animas no comen.

Au bera izango zan, noski, San Antoniori argi eitxeko diru billa etorri jakozenian erantzun zebana:

- Esaixozue San Antoniori egunez ibili dailla.

## EZETZASMATU!

**Estepan Plazaola**



### Zein arraun-talde babesten du Candyk?

Arraun denboraldi bete-betean gauden honetan, arraunarekin lotutako galdera bat dakargu gaurkoan. Etxetresna elektrikoak egiten dituen Bergarako enpresa batek, Candyk, arraun talde bat babesten du azkeneko urteetan. Asmatuko ote zenuke zein den?

- Castro
- Koxtape
- Hondarribia
- Orio

**Erantzun zuzena:** Orio.

## SOLUZIOAK



## ASTEKOHOROSKOPOA

**Gipuzkoako Astrologi Elkartea**

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Arazo ugari izango dituzu ingurukoekin, bai lanean bai familiartean ere. Izan ere, gauza asko inori galdetu barik egiten dituzu. Hortaz, ingurukoek dituzten ideiak kontuan har itzazu, zure proiektuetarako garrantzitsu izan daitezkeeta.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Erabaki garrantzitsuak hartzeko gaitasuna izango duzu, betiere lanean hobetze aldera.Hala ere, aldaketen beldur zara, eta baliteke beharbeharrezko dituzun aldaketa horiek bertan behera geratzea. Horrek kalte egingo dizu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Seme-alabaren batek arazoak izango ditu, eta laguntza beharko du; ahalegin zaitez harekin adeitsu eta tolerante jokatzen. Bestalde, emakumea bazara, min izango duzu bularrean, baina ez da larria izango.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Astean lan proposamen ugari egingo dizkizute. Bestalde, hainbat proiektu bete egingo dituzu, baldin eta berria den guztiarekiko beldurra uxatzen baduzu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Ingurukoen akatsekin toleranteago izaten ahalegindu; izan ere, zuk zeuk ere badituzu zureak. Osterantzean, betiko lagunak galtzeko arriskua izango duzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Askotan esaten duzu ez daukazula nahiko diru; horren ondorioz, ez duzu estimatuko benetan daukazuna eta zaituzte aseko lagunekin eta familiakoekin pasatuko dituzun une atseginek. Eta, horrela jarraituz gero, bakar-bakarrik geratuko zara.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Ziurtasunik eza, beldurra eta babes nahia. Horien ondorioz, bikotekidearekin arazoak izango dituzu; izan ere, egun osoa harekin pasatu gura izango duzu, baina hura estututa sentituko da.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Jendaurrean lan egiten baduzu, ahalegin zaitez lan hori uzten; izan ere, jendeak gogaitu egiten zaituen sentsazioa duzu, eta, halako baten, burua galdu eta edozer astakeria esan zeniezaieke.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Argitasuna, objektibotasuna eta intuizioa. Horiek erabilita edozein arazo konpon zenezake. Bestalde, barreiatzen duzun energia positiboari esker, bat baino gehiago aholku bila hurreratuko zaizu.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Min emango dizun arren, nahigabeak besterik eman ez dizun pertsona batengandik urrundu egingo zara. Bestalde, hotzeriak eta eztarriko mina izateko joera.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Aldaketa beharra duzu eta estimulu berriak bilatu gura dituzu. Edozelan ere, argi ibili, benetan estimatzen duzun pertsonaren bat atzean utzi eta epe luzera damutu egingo zaizu-eta.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Ez jokatu arinkeriaz merkataritza eta finantza kontuetan, ezta kontratuei dagozkien kontuetan ere. Bestalde, nahigabe txikiak izango dituzu, zure erruagatik lapurreta txikiak egingo dizkizute-eta

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

## ‘Arientzan kanpaiak’

MARTITZENA/ **20:30**

### Arientzako kanpaien gaineko erreportajea Goiena Telebistan

*Arientzan kanpaiak die* lelopean saio berezia eskainiko dizuegu. Juan Madinabeitia arientzarrak jo zituen Arientzako Andramari elizako kanpaiak. Goiena Telebistan kanpai-jotze berezia ikusteko aukera izango duzue. Ohiturak agintzen duen moduan jotzen ditu kanpaiak Juan Madinabeitiak: *kanpai luzea, buelta kanpaia, hileta kanpaia*, *hirukotxa, errepika* eta beste hainbat kanpai-jotze egin zituen. Mutikotan ikasi zuen Juan Madinabeitiak kanpaiak jotzen.

## ‘Bertso saioa’

EGUAZTENA/ **20:30**

### Herrialdeen arteko bertso desafioa Aramaion eta GOITBn

Bertso saio polita ikusteko aukera izan zuten aramaioarrek San Martin jaietan, eta eguaztenean GOITBn eskainiko dizuegu. Euskal Herriko lau txapeldunak taula gainean batu, eta Andere Arriolabengoa aramaioarren esanetan ibili ziren bertsotan. Asier Otamendi arabarra, Igor Elortza bizkaitarra, Aitor Mendiluze gipuzkoarra eta Amets Arzallus nafarra ibili ziren nor baino nor gehiago. Zortzi eta erdietan izango duzue Goiena Telebistan ikusgai.



## TELEBERRIAK

### Aurkezleak behar GOITB prestatzen ari den umeendako saio baterako

Urrian hasiko den umeendako saio bat prestatzen ari dira Goiena Telebistan. Haurrak telebista euskaraz ikustera erakartzea da programa honen helburua, eta hori lortzeko asmoz astero ordu erdiko programa emitituko dute. Besteak beste, lehiaketa izango da saio horretan. Programa aurkeztuko duen pertsona egokiaren bila ari dira GOITBko arduradunak, eta telebista gustuko duten gazte euskaldunei probetara aurkezteko dei egin nahi diete. Izena emateko edo informazio zabalagoa eskuratzeko interesatuek 943 71 23 93 telefonora deitu beharko dute.

### Tourreko Pirinioetako etapei buruzko saio berezia egin dezake Goiena Telebistak

Uztailaren 19tik 21era bitartean Frantziako Tourreko etapak Pirinioetatik igaroko dira. Egun horietan txirrindulariak animatzera jende asko joango da Euskal Herritik mendi aldera, baita Debagoienetik ere. Izan ere, ibarretik autobusak antolatu dituzte bertara bidaia egiteko. Baina zaleak ez ezik GOITBko ekipo bat ere bertara joateko ideia aztertzen ari da. Horrela, Tourrean txirrindularien eta zaleen jarraipena egingo dute Goiena telebistako kamerek eta kazetariek. Gero, berriz, grabatutako irudiekin GOITBk saio berezia emituko du uztaileko azken aurreko astean.

**JOKIN LENIZ** / GOIENA TELEBISTAKO JAIETAKO PROGRAMETAKO AURKEZLEA

# *“GOITBkoei eskerrak eman gura dizkiet saioa aurkezteko aukera emateagatik”*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**ETBko *Basetxea* saioak egin zuen ezagun Eskoriatzan ikasten dabilen Jokin Leniz lekeitiarra. *Basetxea*-n lehiakide izan zuen Iñigo Aizpurua eta beste lankide batzuekin batera GOITBrako ibarreko jaien gaineko saioetan jardun du.**

GOIENKARIA

**Zelan hasi zinen GOITBn?**

*Basetxea*-tik irtenda Arrasate Irratian elkarrizketatu gintuzten. Gero, Aretxabaletako Inauteriei buruzko programa grabatzea proposatu ziguten eta geroago, Debagoieneko jaietako programak aurkezteko aukera etorri zen. Gustura ibili gara.

**Beste herriren bateko jaietan izango zarete?**

ETBko *Jaiak* saioa aurkezteko esan zidaten, baina ezezkoa eman nien, lana dela eta. Telebistako gauzak ikasteko gogoa sartu zait, eta beste saio baterako aukera balego hartuko nuke.

*“Telebistako kamaren aurrean zenbat eta gehiago jardun orduan eta gehiago ikasten da”*

**Prestakuntza berezirik egin duzu saioa aurkezteko?**

Ez, 35 egunez kameren aurrean egon ginen, baina horrek ez zigun askorako balio izan. GOITBn jarduten duten beste askorekin konparatuz ezerezean geratzen gara. Hala ere, GOITBko ekipo osoari eskerrak eman nahi dizkiot gugan konfiantza jarri duelako eta aukera hau eman digulako.

**Jendeari gustatzen zaio telebistan agertzea?**

Jaietan jendea berotuta egoten da eta ez du arazorik izaten. Baina kalean lasai egon eta telebistakoak joaten garenean, lotsa izaten dute. Beraz, ondo jakin behar da kamerekin norengana joan.

**Eta zuri?**

Bai, baina beti dago hobetzeko zerbait. Kamera aurrean zenbat eta gehiago jardun orduan eta gehiago ikasten da. Orain ikastaro bat egin nahi nuke kamera aurreko lana zela egin jakiteko.

**Ezaguna izatea jaietan ibiltzeko abantaila ala traba da?**

Hasieran ez zitzaidan gustatzen jendeak ezagutzea, askok adarra jo izan digutelako, baina ohitu egin naiz. Era berean, ezagunak garelako deitu digute, esaterako, telebistarako.

## KAMERAAURREAN

***“Hasieran arazoak izan genituen Marrupako proiektua abiarazteko. Gaur egun bideratuta dago eta Mozambiken dauden ibarrekoak oso gustura daude”.***

**Jose Angel Mikeo** / Mundukide Fundazioa
“SOLASEAN” (2003-07-09)

***“Debagoienetik Mediterraneora joaten dira asko, eta gero eta gehiago Hego Amerikara. Dena dela, askotariko bidaiak egiten dituzte debagoiendarrek”.***

**Ainhoa Agirrebeña** / Barcelo Bidaiak
“BERRIAK” (2003-07-09)

## TELEBEGI/ Oihana Elorza

### *Berriz?*

**Ama, nik hau ikusita daukat”. Askotan esaten diote esaldi hauxe lankide bati bere bi alabek. 7 urte dituzte, eta noski, batik bat haurren programazioa ikusten dute. Hala ere, badakite ikusten dutena zaharra dela. Berri-berria ez behintzat, nahiz eta telebistan gauza berriak egitea oso zaila den. Udan ere, oporretan, gauza bera esaten diote bikiek amari.**

**Zine programa bateko aurkezleak, udan pelikulak ez ikusteko aholkatu zituen ikusleak. Udan oso pelikula txarrak botatzen dituztela telebistan, eta ahal izanez gero, ez ikusteko.**

**Gehienen oporrekin batera heltzen da udako programazioa. Freskoagoa, alaiagoa eta arinagoa izaten da. Jaiak han eta jaiak hemen. Beroa, oporrak eta giriak. Udako kantua, moda eta suak. Programazio berriak uda erakusten du. Atal berriekin eta errepikatzen diren programekin. Gainontzeko hilabetetan bezalaxe.**

Olarte, 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 18 86
Faxa: 943 77 09 36

MILAR ELKORO

Nolako pertsonak, halako gustuak eta neurriko elektratresnak

Uda '03 Katalogo berria

azken nobedadeak ile-luzatzeetan!

- azkarragoa
- garbiagoa
- eusteko teknika hobea

ZIRT-ZART & ZIRT-ZART & ZIRT-ZART

gertatu zure ilea udarako!

- moztu
- kolorea eman
- metxak
- tratamenduak

Gorbea 2 • ARETXABALETA • Tel.: 943 77 09 44

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko uztailaren 11

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Asier Urdanpilleta/Mendi lasterkaria

**Zer dela-eta mendian lasterka ibiltzeko ohitura hori?**

Aurreko urtean hasi nintzen mendi maratoietan, Aizkorrikoarekin. Egunkarian notizia ikusi eta prestatzera animatu nintzen. Gorbeiakoa egin nuen lehenengo, prestakuntza gisa, eta irabazi egin nuen. Hala, Euskadiko Zirkuitua egitea erabaki nuen, eta Euskadiko txapeldun geldi-tu nintzen.

**Hasi berria zara, hortaz.**

Egia esan, Euskal Herrian nahiko kirol berria da hau. Katalunian eta atzerrian, Italian, esate baterako, aspalditik egiten dute.

**Mendi tontorrek ez dizute ihesik egingo. Beti dago lasai ibiltzeko aukera.**

Mendian korrika ibiltzeak, ordea, sentsazio ezberdinak sorrarazten dizkit, eta niri izugarri gustatzen zait.

**Alpino Madrileño maratoira joan, eta bigarren postuarekin itzuli zinen. Pozik, ezta?**

Aizkorrirako entrenatzeko asmoz joan nintzen hara, Gaizka Itzari lagunduaz. Gaizka ez zihoan oso ondo, eta ni atzekoz aurrera joan nintzen. Azkenean bigarren tokian sartu nintzen helmugan.

**Aurreko asteburuan, berriz, Italian izan zinen.**

Madrilen bigarren egin ondoren Euskadiko Mendi Federazioak Munduko Kopa egiteko animatu ninduen. Zazpi lasterketa daude, eta lautan puntuatu beharra dago. Italian italiarrak, amerikarrak... elkartu ginen. Oso lasterketa gogorra izan zen, oso teknikoa.

**Munduko Kopan lider zaudela kontuan hartuta, zein helburu dituzu datozen asteotarako?**

Bi proba bakarrik egin dira, eta orain lehenengo nagoen arren, badakit ez dudala luze iraungo; izan ere, italiarrak oso onak dira eta iazko txapeldun Agustin Roc kataluniarra ere hortxe dago. Hala ere, moralarekin nago. Urrira arte iraungo du Munduko Kopak, eta oraindik denbora dagoenez, gauza asko gerta daitezke.

**Mendi maratoien kontura, mundua ezagutzen ere gustura ibiliko zara!**

Mendi Federazioak ordaintzen dizkit gastu guztiak, eta tokiez gain jende asko ere ari naiz ezagutzen. Irailean, esaterako, Italiara joango naiz, eta urrian Malasiara.

**Mendi maratoietan, gainera, euskaldunok ondo moldatzen zarete. Odol klasearen kontua da?**

Gogo handia dugu, baina Italian eta Katalunian askoz ere jende gehiago ibiltzen da. Hori dela eta, aukera handiagoa dute aurreneko postuetan ibiltzeko.

**Oñati inguruan baduzu nahiko mendi entrenamenduetarako.**

Hemengo zirkuituan ibiltzeko egokiak dira mendi horiek, baina mundukoan 2.700 metrotik 4.000 metro arterako mendiak igo behar ditugu...

**Oñatin bizi bai, baina ez zara oñatiarra.**

Ez, izatez Añorgakoa naiz, Donostiakoa. Hala ere, bi urte daramatzat hemen lanean eta bizi izaten.

**"Aurreko urtean hasi nintzen mendi maratoietan, Aizkorrikoarekin"**

**"Mendian korrika ibiltzeak, ordea, sentsazio ezberdinak sorrarazten dizkit"**

**"Munduko Kopan lider nago, baina ez dut uste luze iraungo dudanik"**

► *Añorgarra / 30 urte / Mendi maratoien Munduko Kopan lider*

## PIPERRAUTSA

*Ito*

Lortu zuten *Euskaldunon Egunkaria* ixtea, eta itxita irautea. Lortu dute Batasuna botatzea udaletatik. Hori aurtengo hazañak bakarrik aipatuta. Baina asegaitzak dira, eta gehiago nahi dute. Erasoak jarraitzen du.

Anekdotikoa baina esanguratsua Tourrean gertatu dena. Euskarari tokia egingo omen zioten, baina Espainian zalaparta sortu da eta akabo. Zergatik? Batasuna ere tartean zegoelako. Tinko muturreraino.

Latzagoa da *Gara*-rekin egin nahi dutena, *Egin*-en zorra dela eta. Berez, ahaleginak ez du ez buru eta ez hanka. *Egin* ez da likidatu, bere ondarea eta zorrak hor daude, epaileek trabatuta. Horrelakoetan, ondarea diru bihurtzen da zorrak ordaintzeko. Hori eginda zer sobratzen den, dirua edo zorra, hura banatzen da akziodunen artean. Ondarea likidatu gabe zorrak hirugarren bati leporatzea astakeria galanta da. Baina Espainian dena da posible, eta hor dago arriskua. Garzon nazioarteko epaitegi batek nahi omen du. Eraman dezala, debalde.

Horrelakoak irakurrita, arnasa hartzea ere kosta egiten da, itolarriaz. Izan ere, ez zaie mugarik ikusten. Eskerrak Euskobarometroak ekarri duen oxigeno apur bat. Espainian ez bezala, hemen erasoak sortzen du kontrako erreakzioa, eta gure gizartean ez dago amore emateko intentziorik. Gero eta urrunago gaude Espainia erasotzailetik.

Horrela den artean, estutu bai baina ez gaituzte itoko.

MIKEL IRIZAR